



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

XI. legegintzaldia

Iruña, 2025eko apirilaren 4a

43. ZK.

A U R K I B I D E A

B SAILA:

Foru-lege proposamenak:

- 11-25/PRO-00010. Foru-lege proposamena, Nafarroan etxebizitza ordainerraza izateko eskubideari buruzkoa (horren bidez, Nafarroan Etxebizitza Izateko Eskubideari buruzko maiatzaren 10eko 10/2010 Foru Legea eta Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legearen testu bategina onesten duen uztailaren 26ko 1/2017 Legegintzako Foru Dekretua aldatzen dira). Contigo Navarra-Zurekin Nafarroa, Nafarroako Alderdi Sozialista, EH Bildu Nafarroa eta Geroa Bai talde parlamentarioek aurkeztu dute (3. or.).
- 11-25/PRO-00011. Foru-lege proposamena, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen Testu Bategina onesten duen ekainaren 2ko 4/2008 Legegintzako Foru-dekretua aldatzekoa. Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioak aurkeztu du (32. or.).

E SAILA:

Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- 11-25/MOC-00051. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentua premia-tzen baita hezkuntza- eta demografia-azterlan zorrotz bat egin dezan sistemako etapa guzti-guztietan, itundu behar ez diren unitateak arian-arian kentzeko kronograma bat ezartzea ahalbidetuko duena. Carlos Guzmán Pérez jaunak aurkeztu du (34. or.).
- 11-25/MOC-00052. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia-tzen baita berarenak balira bezala har ditzan PRO-TAV plataformaren helburuak eta proposamenak. Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioak aurkeztu du (35. or.).
- 11-25/MOC-00053. Mozioa, zeinaren bidez Espainiako Gobernua premia-tzen baita berehala berrikus dezan 666/2023 Errege Dekretua, albatari-arretaren arlo guztien bideragarritasuna bermatzeko. Félix Zapatero Soria jaunak aurkeztu du (37. or.).
- 11-25/MOC-00054. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia-tzen baita Nafarroako ijito-populazioaren garapenerako estrategia berri bat taxutu dezan 2025ean. Javier Arza Porrás jaunak aurkeztu du (38. or.).

- 11-25/MOC-00055. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita gehienez ere hiru hilabeteko epean aurkez dezan Nafarroarako Gizarteratze Estrategia berri bat. Raquel Garbayo Berdonces andreak aurkeztu du (39. or.).
- 11-25/MOC-00056. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita gehienez ere hiru hilabeteko epean taxutu dezan txosten bat, zeinean aztertuko baita zergatik den Nafarroa batez beste gutxien ordaintzen diena mendekotasuna izanik familia-inguruneke zaintzetarako prestazio ekonomikoak jasotzen dituzten pertsoneri, bai eta zer neurri ezarriko diren autonomia-erkidegoen batez bestekoa ordaintzeko gutxienez ere. María Isabel García Malo andreak aurkeztu du (40. or.).
- 11-25/MOC-00057. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita azterlan integral bat egin dezan Nafarroako genero-indarkeria ekonomikoari buruz eta horri aurre egiteko garatu litezkeen tresneri buruz. Contigo Navarra-Zurekin Nafarroa, Nafarroako Alderdi Sozialista, EH Bildu Nafarroa eta Geroa Bai talde parlamentarioek aurkeztu dute (41. or.).
- 11-25/MOC-00042. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Memoriaren Institutua premiatzen baita azterlan bat egin dezan gerra zibilean Errepublikaren Armadako kide izan ziren nafarrei buruz eta haien oroimen heroikoa duintzeko egin beharreko jarduketak egin ditzan. Memoria eta Bizikidetz, Kanpo Ekintza eta Euskara Batzordean izapidetzea (42. or.).

F SAILA:**Galderak:**

- 11-25/POR-00140. Galdera, Zubiarte Euskaltegiaren eta Euskararen Irakaskuntzarako Baliabide Zentroaren etorkizuneko kokapenari buruzkoa. Eneka Maiz Ulaiar andreak egin du (43. or.).
- 11-24/POR-00387. Galdera, Neguko Bidezaintza Planari buruzkoa. Galdera erretiratzea (43. or.).
- 11-25/PES-00144. Galdera, Valle de Odieta SCLk planteatutako ondare-erantzukizunaren erreklamazioari buruzkoa. Adolfo Araiz Flamarique jaunak egin du (44. or.).
- 11-25/PES-00145. Galdera, Artaxoako Ecofert Sansoain SL eta Tuterako Oleofat Trader taldearen planteatuko lixibiatuen espedienteak zertan diren jakiteko. Miguel Bujanda Cirauqui jaunak egin du (45. or.).
- 11-25/PES-00146. Galdera, Tuterako Reina Sofia ospitaleko medikuen datuen gaineko desadostasunei buruzkoa. Leticia San Martín Rodríguez andreak egin du (45. or.).
- 11-25/PES-00147. Galdera, 35+300 kilometro puntutik 40+900 kilometro puntura bitarte N 121 A errepidea 2+1 erako errepide bihurtzeko proiektuari buruzkoa. Pedro José González Felipe jaunak egin du (46. or.).
- 11-25/PES-00148. Galdera, autobian bidesariak jartzeari buruzkoa. María Teresa Nosti Izquierdo andreak egin du (46. or.).
- 11-25/PES-00149. Galdera, Maristetan etxebizitzak eraikitzeari dagokionez Arrasate talde sustatzailearen arduradunekin egindako bilerei buruzkoa. Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia jaunak egin du (47. or.).
- 11-25/PES-00150. Galdera, Cintruénigoko La Paz DBHiren eraikina handitzeari eta LHko ikasketak paratzeari buruzkoa. Javier García Jiménez jaunak egin du (48. or.).
- 11-25/PES-00151. Galdera, animaliak hartzeko zentroen lurralde- eta eskumen-planari buruzkoa. Oihan Mendo Goñi jaunak egin du (48. or.).
- 11-25/PES-00152. Galdera, Zubiarte Euskaltegiaren eta EIBZren kokapenari buruzkoa. Eneka Maiz Ulaiar andreak egin du (49. or.).
- 11-25/PES-00153. Galdera, zerbitzuburuak eta atalburuak izendatzeari buruzkoa. Adolfo Araiz Flamarique jaunak egin du (50. or.).
- 11-25/PES-00154. Galdera, Nafarroako etxebizitza-jabeen kopuruari buruzkoa. Mikel Zabaleta Aramendia jaunak egin du (51. or.).

G SAILA:**Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

- GRP-3/23. Oihana Gallo San Román andrea EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioan sartzea (52. or.).

J SAILA:**Ponentziak:**

- 11-24/PON-00001. Parlamentuko Erregelamenduaren 26.2 artikuluan jasotzen den Jokabide-kodea aztertzeko eta onesteko ponentzia. Lanak bukatzeko epea luzatzea (53. or.).

B saila:
FORU-LEGE PROPOSAMENAK

11-25/PRO-00010. Foru-lege proposamena, Nafarroan etxebizitza ordainerraza izateko eskubideari buruzkoa (horren bidez, Nafarroan Etxebizitza Izateko Eskubideari buruzko maiatzaren 10eko 10/2010 Foru Legea eta Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legearen testuategina onesten duen uztailaren 26ko 1/2017 Legegintzako Foru Dekretua aldatzen dira)

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko martxoaren 31n eginiko bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobeitzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dien legegintza-ekimena erabiliz, Contigo Navarra-Zurekin Nafarroa, Nafarroako Alderdi Sozialista, EH Bildu Nafarroa eta Geroa Bai talde parlamentarioek honako foru-lege proposamena aurkeztu dute: Foru-lege proposamena, Nafarroan etxebizitza ordainerraza izateko eskubideari buruzkoa (horren bidez, Nafarroan Etxebizitza Izateko Eskubideari buruzko maiatzaren 10eko 10/2010 Foru Legea eta Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legearen testuategina onesten duen uztailaren 26ko 1/2017 Legegintzako Foru Dekretua aldatzen dira). Eta presako prozeduraz izapidetu dadin eskatu dute.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 121. eta 168. artikuluetan ezarritakoarekin bat, ERABAKITZEN DA:

1. Agintzea foru-lege proposamena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.
2. Aipatu foru-lege proposamena presako prozeduraz izapidetzea.
3. Foru-lege proposamen hori Nafarroako Gobernuari igortzea, Erregelamenduko 168. artikuluan ezarritako ondorioetarako, eta Nafarroako Gobernuari adieraztea bere iritzia emateko epea zortzi egunekoa dela.

Iruñean, 2025eko martxoaren 31n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Foru-lege proposamena, Nafarroan etxebizitza ordainerraza izateko eskubideari buruzkoa (horren bidez, Nafarroan Etxebizitza Izateko Eskubideari buruzko maiatzaren 10eko 10/2010 Foru Legea eta Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legearen testuategina onesten duen uztailaren 26ko 1/2017 Legegintzako Foru Dekretua aldatzen dira)

HITZAURREA

Espainiako Konstituzioaren 47. artikuluan ezarritakoari jarraikiz, etxebizitza duin eta egokiaz gozatea herritar guztien oinarritzko eskubidea da, izaera sozialekoa, eta horren aitortpenak berekin dakar botere publikoek nahitaez jardun positiboa gauzatu beharra eskubide hori zinki eta finki erabilia izan ahal izateko.

Etxebizitza beharrezko espazioa da pertsonaren oinarritzko eskubideak garatu ahal izateko, hala nola osotasun fisiko eta mentalerako eskubidea (Konstituzioaren 15. artikulua), askatasunerako eskubidea, intimitaterako eskubidea (Konstituzioaren 18. artikulua), eta duintasunerako eta nortasunaren garapen askerako edo egoitza-askatasunerakoa (Konstituzioaren 19. artikulua). Horrez gain, badaude etxebizitzarako eskubidearen beste zertzelada batzuk, hala nola bazterketa, diskriminazioa, etxetuztarazpen arbitrarioak, eta etxebizitza eskuratzeko prozesuetako informaziorik edo parte-hartzerik eza, eskubide hau uztartzen dutenak berdintasun formalararen printzipioarekin (Konstituzioaren 14. art.), ber-

dintasun materialaren printzipioarekin (Konstituzioaren 9.2 art.), osasunerako eskubidearekin (Konstituzioaren 45. art.) edo hezkuntzarakoarekin (Konstituzioaren 27. art.). Beste eskubide sozial batzuekiko lotura horrek behartzen du etxebizitzarako eskubidearen izaera "duin eta egokia" gure ordenamendu juridikoak zaintzen dituen eskubide horiek kontuan harturik definitzera, barne harturik giza eskubideen alorrean Espainiak berretsi dituen adierazpen eta hitzarmen desberdinetan jasotzen direnak (Konstituzioaren 10. art.).

Horrela, Giza Eskubideen 1948ko abenduaren 10eko Adierazpen Unibertsalak 25.1 artikuluan xedatzen du ezen pertsona orok eskubidea duela bizi-maila egoki baterako, bai berari bai bere familiari etxebizitza ziurtatuko diona. Eskubide Ekonomikoen, Sozialen eta Kulturalen 1966ko abenduaren 19ko Nazioarteko Itunaren 11.1 artikulua orobat aitortzen du pertsona orok duela bizi-maila egoki baterako eskubidea, horrek barne harturik etxebizitza egoki baterakoa. Europa mailan, Europako Gutun Sozialean, zeina 1996an berrikusia izana eta Espainiak berretsita baitago, estatuak konprometitzen dira neurriak hartzera, jomugatzat dutenak "behar adinako kalitatezko etxebizitzaren lorpena faboratzea; bizileku-gabetasuneko egoera prebenitu eta samurtzea, egoera hori arian-arian desagerrarazteko eta behar adinako baliabiderik gabeko pertsonentzat etxebizitzaren prezioa ordainerraz egiteko". Halaber, Europako Parlamentuaren 2021eko urtarrilaren 21eko Ebazpenak, etxebizitza duin eta ordainerraz baterako ororentzako irispideari buruzkoa den horrek, Batzordeari eta Estatu Kideei eskatzen die ziurta dezatela etxebizitza egoki baterako eskubidea oinarritzko giza eskubide gisa aitortua eta baliatzeko modukoa izateaz, horretarako europar nahiz estatu-mailako arauen bitartez, eta ororentzat berma dezatela etxebizitza duin baterako irispide-berdintasuna. Espainiako Hiri Agendak ere, zeinak ezartzen baititu 2030 Agendak aldarrikatzen dituen garapen jasangarriko helburuak, dei egiten du halako etxebizitza-politikak egin daitezela zeinek aldeztu egiten baitute pertsona guztiek etxebizitza duin eta egoki bat prezio ordainerrazetan eskuratzeko duten eskubidearen arian-ariango gauzatzea; halaber, diskriminazio- eta indarkeria-mota guztien aurka borrokatze, bereziki babesturik zaurgarritasun-egoerak pairatzen dituzten haiek, diru-sarrera apaleko gizataldeak eta zailtasun bereziak dituztenak. Agindu hori betetzeko bitartekoei dagokienez, Agenda horrek, nazioartekoek eta etxebizitzarako eskubidearen aldeko 12/2023 Legeak berak ere azpimarra berezia jartzen dute lurzoruaren eta etxebizi-

tzaren funtzio sozialean, eta konpromisoa hartzen dute etxebizitza-sorkuntzarako eta edukitza-mota desberdinen nahiz pertsonengan ardazturiko ikusmoldeen sustapenerako.

Konstituzioaren, Europaren eta nazioartearen mandatu hori betetzerantzko urrats bat gehiago egiteko unea da; horretarako, neurriak hartu behar dira, faboratuko dutenak higiezin-sail egoki bat eskuragarri egotea prezio ordainerrazean, oro har herritar guztiek eta, zehazkiago, gizatalderik zaurgarrienek etxebizitza lortzeko modua emanen duena. Alde horretatik, azken urteotan izan diren aldaketa estruktural, ekonomiko, sozial eta demografikoei, bai eta onibar-merkatuaren bilakaerak eta Nafarroako Foru Komunitatean dagoen etxebizitza-larrialdiaren problematikak ere, egungo araudia aldatzera behartzen dute, etxebizitza-lorpenerako bide haiek ezarriz zeinek sustatuko baitute etxebizitza babestu gehiago eskueran ipintzea eta herritarrek haietarako irispidea berdintasun handiagoan izan dezaten. Etxebizitza-eskubide desberdinak aitortzea da kontua, halako moldez non nafar herritarren premia ekonomiko eta sozialei erantzuteko adinakoa izanen den edukitza-moduen ugaritzea bermatuko baita, etxebizitzaren sustapenari eta zaharbertitzeari bultzada emanez, beharrian- eta efizientzia-printzipioak betetzeko modua emanen duten bitartekorik efizienteenei helduz, administrazioarteko elkarlanerako pizgarriak jarritz eta elkarlan publiko-pribatuaren alde jokatzuz. Horrela, ba, lege honetan jasotzen diren neurriak eta ematen diren xedapenak zeharo justifikatuta daude, etxebizitza babesteak eta bizilekuaren araberako bazterketarako arriskuan dauden herritarrek ere babesteak duen munta sozial eta ekonomikoaren bitartez eta jomugatzat harturik lehen ezarritako helburuak eta legezko mandatuak erdiestea.

Erronka horiei heltzeko, xedapen berriak txertatzen dira bai maiatzaren 10eko 10/2010 Foru Legean, Nafarroan Etxebizitza Izateko Eskubideari buruzkoan alegia, zeina etxebizitza-lorpena bermatzeko balio duen tresna nagusia baita, bai eta uztailaren 26ko 1/2017 Legegintzako Foru Dekretuan ere, zeinaren bidez onesten baita Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legearen testu bategina.

Foru lege honetan egindako aldaketarik sako-nenak honako hauek dira:

I. Etxebizitza babestuen kalifikazio-araubideen berrikuspena; horrela, erosteko aukeradun errentamenduaren araubidea bertan behera uzten da, eta errentamendu ordainerrazaren araubidea txertatzen,

bai eta jabetza-araubidea ere, halako moldez non, orain, titulartasuna erabatekoa nahiz azalera-eskubideduna izaten ahalko baita.

II. Ildo horretan, aurreikusitako araubide berrien oinarritzko zertzeladak ezartzen dira, hala nola erabileraren iraupena, hileroko errentaren gehieneko zenbatekoa edo kasuan kasuko etxebizitzak eskuratzeko betekizun berariazkoak.

III. Esleipen-prozedurak berrikusten dira, eta berritasun nabarmenak ezartzen: horrela, errentamendu-araubideko eta errentamendu ordainerrazeko araubideko etxebizitzak eskuratzeko prozesuetan baremazio-sistema zozketa-sistemarekin ordeztzen da, gizatalde jakin batzuentzako erreserba orokorren kasuan.

IV. Elkarlan publiko-pribaturako moduen erabilera sustatzen da, errentamendu ordainerrazeko etxebizitzaren sorta ugaritzeko asmoz.

V. Bizileku-molde berriak jasotzen dira, hala nola zuzkidurazko bizitokiak, zeinak tankeratuta baitaude titulartasun publikoko ekipamendu komunitario gisa, helburu dutenak gizatalde jakin batzuek bizitoki duin bat eskuratzeko zailtasun-egoera zehatzak txandaka artatzea.

VI. Etxebizitza-ondare publikoa indartzen da eta Lurzoru Publikoaren Foru Bankuaren zereginak ugaritzen, halako moldez non zilegi izanen baitu bere ardurapeko ondasunak bideratzea, etxebizitza babestura ez ezik, zuzkidurazko bizitokietara ere. Horrekin bat, baimena ematen da etxebizitza horiek sustatuak izan daitezen nola eta sektore publikoak, etxebizitza babestuen kudeaketan diharduten kapital mistoko sozietateek, etxebizitza-kooperatibek edo hirugarren sektoreko entitateek azalera-eskubidearen esleipena eginez.

VII. Etxebizitza-erregidatzaile Handien Erregistro berria eratzen eta arautzen da. Administrazio-izaerakoa da, eta etxebizitza-alarrean eskudun den departamentuari atxikia. Xede du etxebizitza-erregidatzaile handi direnenak izanik Nafarroako Foru Komunitatean kokatuta dauden etxebizitzaren kontrola eta jarraipena egitea.

1. artikulua. Nafarroan Etxebizitza Izateko Eskubideari buruzko maiatzaren 10eko 10/2010 Foru Legea aldatzea.

Nafarroan Etxebizitza Izateko Eskubideari buruzko maiatzaren 10eko 10/2010 Foru Legeko honako artikulua hauei dagokienez honako aldaketak, gehikuntzak edo ezabaketak egiten dira:

Bat. 2. artikuluko 1. apartatuko c) letra aldatzen da, eta apartatu horri i) letra berria gehitzen zaio. Hona:

"c) Etxebizitza babestuen edo Foru Komunitateko Administrazioaren bultzada duten jarduketara edo programetan erabilitako etxebizitzak eskuratu, errentan eman eta esleitzea".

"i) Zuzkidurazko bizitokiak sustatzea".

Bi. 3. quinquies artikulua aldatzen da. Honela gelditzen da idatzita:

"3. artikulua. Quinquies. Etxebizitza bat eskuratu eta bertan bizitzen jartzeko aukera berdina guztientzat.

1. Pertsona guztiek modua izan behar dute etxebizitza bat eskuratu eta bertan bizitzen jartzeko, baldin harreman juridiko bakoitzean aplikatzekoak diren zuzenbidezko eta kontratuzko baldintzak betetzen badituzte, zuzeneko nahiz zeharkako diskriminaziorik edo jazarpenik pairatu gabe.

2. Lehenengo apartatuak aipatzen duen arauari jarraituz, administrazio publikoak behartuta daude egoki diren neurriak hartzera, sektore publiko nahiz sektore pribatuko pertsona guztiei eta eragile guztiei aplikatzekoak direnak.

3. Bigarren apartatuak aipatzen duen babeste-ekintzaren berariazko xede dira honako egoera eta jarduketara hauek:

a) Zuzeneko diskriminazioa, zeina gertatzen baita pertsona batek etxebizitzarekin zerikusia duen zertzeladaren batean jasotzen duen tratua bestelakoa denean beste pertsona batek antzeko egoera batean jasotzen duenaren aldean, non eta tratu-desberdintasunak ez daukan helburu zilegi bat, objektiboki eta zentzutasunez desberdintasun hori justifikatzen duena, eta helburu hori erdieste aldera erabilitako baliabideak egokiak eta beharrezkoak badira.

b) Zeharkako diskriminazioa, zeina gertatzen baita itxuraz neutroa den arau-xedapen, plan, hitzarmen- nahiz kontratu-klausula, itun individual, aldebakarreko erabaki, irizpide edo jokamolde batek pertsona bati etxebizitzarako eskubidearen baliatzean desabantaila partikular bat ekartzen diotenean beste pertsona batzuen aldean. Ez dago zeharkako diskriminaziorik baldin jarduketak helburu zilegi bat badu, jarduera hori objektibotasunez eta zentzutasunez justifikatzen duena, eta helburu hori erdieste aldera erabilitako bitartekoak egokiak eta beharrezkoak badira.

c) Onibar-jazarpena, halakotzat ulerturik zuzenbide-abusuzko egintza edo ez-egintza oro, xede duena pertsona jazarriari enbarazu egitea bere etxebizitzaren erabilera baketsuan, eta hari etsaitasunezko giroa sortzea ikuspegi materialetik, pertsonaletik edo sozialetik, azken bateko jomuga delarik hari bere nahiaz bestelako erabaki bat harraraztea etxebizitzan egoteko daukan eskubideari buruz. Lege honen ondorioetarako, onibar-jazarpena diskriminazio bat da. Etxebizitzaren jabeek errentamenduko errenta kobratzeari justifikaziorik gabe ezetza ematea onibar-jazarpenaren zantzua da.

Hiru. 4. artikuluan, 3. apartatua aldatzen da, eta 9. apartatu berri bat gehitzen da, testu honekin:

“3. Norberaren erabilerarako etxebizitza babes-tuaren sustatzailea da berak bakarrik edo beste batzuekin batera elkarte edo kooperatiba bat eratu etxebizitza bat bere familia unitatearen ohiko bizileku gisa erabili eta gozatzeko asmo her-tsiarekin eraikitze lanak erabaki, bultzatu, pro-gramatu eta norberaren edo besteren baliabideekin finantzatzen dituen pertsona fisikoa. Aurreko hori gorabehera, etxebizitza babestuaren susta-pen batean beharrezkoa denean Etxebizitza babestuaren eskatzaileen zentsuan izena emanda egotea baremozko esleipena egin ahal izateko, ez da onartuko sustatzaileak edo sustatzaileek elkar-te edo kooperatiba gisa jarduterik”.

“9. Zuzkidurazko bizitokitza joko dira titularta-sun publikoko ekipamendu komunitario haiek zein-ak zerbitzu publikotarako sustatuak baitira, xede harturik gizatalde jakin batzuek bizitoki duina eskuratzeko duten zailtasun bereziko egoerei txandakotasunez erantzutea.

Zilegi izanen da bizitoki horien sustatzaile iza-te lurzatiaren titular diren administrazio publikoak, edo, lagapen-kasuan, enpresa publikoak; zilegi izanen da, halaber, bizitokien gaineko administra-zio-emakidak eratzea hirugarren batzuen alde, horiek izan daitezen bizitokiak eraiki, birgaitu eta kudeatuko dituztenak.

Zuzkidurazko bizitokiak zuzkidurazko ekipa-mendu publiko gisa garatze aldera, administrazio publikoek zilegi izanen dute beharrezkoak diren lurzoruak eskuratzeko lurralde-antolamendu eta hirigintzaren alorreko araudi indardunari jarraikiz, edo beste administrazio publiko batzuekiko hitzarmen bitartez. Foru-titulartasun publikoko zuzki-durazko bizitokiak Lurzoru Publikoaren Foru Ban-kuan jasota egonen dira.

Erregelamenduz ezarriko da Nafarroako Gobernuaren titulartasuneko zuzkidurazko bizitokien eskuratzeko, funtzionatzeko eta jendeztatzeari aplikatzeakoa zaien araubide juridikoa. Era berean onetsi ahalko da Nafarroan zuzkidurazko bizileku orok kalitate, diseinu eta barne-banaketaren aldetik bete behar dituen baldintzen zehaztapena, bai eta horien eraikuntza eta erabilera ikuskatu eta kontrolatzeko prozeduren araubidea ere.

Ustiategi bakarreko irizpideari jarraituz antola-tuko dira, eta ez da posible izanen bizitokiaren barne-banaketa egitea jabetza horizontalaren araubidean. Horrek ez du ezertan galaraziko zuz-kidurazko bizitoki horrek eraikina partekatzea beste hirigintza-erabilera desberdin batzuekin; kasu horretan, zuzkidurazko bizitokia ezaugarritu-ko da jabetza horizontalaren araubide berean sar-tutako beste elementuetatik bereizitako elementu pribatibo gisa, hala nola etxebizitza, lokal edo aparkalekuetatik”.

Lau. 5. artikulua aldatzen da, eta testu hau iza-nen du:

5. artikulua. 5. artikulua. Dirulaguntza jasotzen duten jarduketa babesgarri guztiei aplikatu beha-rreko betekizunak eta denborazko baldintza.

1. Baldin Nafarroako Gobernuaren dirulagun-tza hartu duen etxebizitza baten jabetza edo hura erabili eta gozatzeko eskubidea edozein tituluren bidez laga edo eskualdatzen bada etxebizitza horren edo zaharberritze babestuko obren behin betiko kalifikazioaren egunetik hasita hamar urte igaro baino lehen, lagatzaile edo eskualdatzaile horrek dirulaguntza guztia itzuli beharko dio Nafa-rrako Gobernuari, berandutza-interesa gehituta. Eskualdaketak etxebizitzaren jabeetatik batzuen eskubideak bakarrik ukitzen baditu, kasu horretan itzuli beharrezkoa izanen da eskualdatzen den zatiaren eskubideek jabetza osoarekin alderatuta hartzen duten partaidetza-ehunekoaren arabera-koa. Bigarren eskualdaketaren bidez esleitzen diren etxebizitzaren kasuan, hamar urteko epearen kontaketa hasiko da etxebizitzaren jabaria eskura-tzaile berriari eskualdatzeko eskrituraren egunetik aurrera.

Apartatu honetan aurreikusten dena ez da aplikatzeakoa izanen Alokairu Poltsan sartzen diren etxebizitza hutsen erabilera lagatzearen kasuetan.

2. Halaber izanen da itzuli beharrezkoa jasotako laguntzen zati proportzionala baldin eta etxebizi-tzaren esleipena titularkide bati egiten bazaio etxebizitzaren edo birgaitze babestuko obren behin

betiko kalifikazio-egunetik zortzi urte igaro baino lehenago, ezkonduen banantze-, dibortzio- edo bikote egonkor baten bereizte-prozesuen ondorioz.

3. Artikulu honetan xedatutakoa ez da aplikatuko lagapena mortis causa gertatzen denean, ez eta alokairuan emateko behin betiko kalifikazioa hartu duten etxebizitza babestuen espedienteetan dauden eraikin osoen titulartasuna eskualdatzen denean ere, baldin eta, azkeneko kasu horretan, eskualdaketak baimena jasotzen badu etxebizitza-arloan eskumena duen departamentuarengandik.

Halaber, artikulu honetan xedatutakoa ez da aplikatuko etxebizitza babestua edo gizarte-integratio etxebizitza ordainean emana denean hartzekodunari edo bere taldeko edozein sozieta-teri, edo hipoteka-betearazpeneko prozeduraren bidez nahiz judizioz kanpoko salmenta bidez eskualdatzen denean.

Apartatu honetan jaso diren aurreikuspenek ez diete aldatarik ekarriko ez etxebizitzaren kalifikazioaren araubide juridikoari ez eta hari aplikatu beharreko gainerako baldintzei ere.

4. Ezin izanen dute lortu etxebizitza babestua eskuratu edo alokatzeagatik dirulaguntzarik 100.000 euro baino gehiagoko ondasun, eskubide edo aktibo finantzarioak dauzkatenean. Ez dira kalkulatu horretan sartuko enpresa- edo lanbide-jarduera bati atxikitako ondasunak.

5. Ezin izanen dute birgaitze babestuagatik dirulaguntzarik lortu 100.000 euro baino gehiagoko ondasun, eskubide edo aktibo finantzarioak dauzkatenean, deskontatua izan ondoren birgaitu beharreko etxebizitzaren balioa, salbu eta enpresa- edo lanbide-jarduera bati atxikitakoak direnean. Gero batean alokatuak izatekoak diren etxebizitzak birgaitzeko dirulaguntza eskatzen denean, gehieneko errenta izanen da alokairu ordainerrazeko araubideko babes ofizialeko etxebizitzari dagokiena, eta errentari ezin izanen dute lehen edo bigarren graduako odol- nahiz ezkontza-ahaidetasunik izan birgaitze babestuko espedientearen sustatzaile diren pertsona fisikoekin edo haien bazkide edo partaideekin, sustatzailea pertsona juridiko bat denean".

Bost. 6. artikulua aldatzen da, eta testu hau izanen du:

"6. artikulua. Eskaerak ebazteko administrazio-epaia.

Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko Legeak xedatuaren arabera ebatzi eta jakinaraziko ditu kalifikazioen, deskalifikazioen, kontratu ikus-onespenen eta dirulaguntzak ematearen gainean izapidetzen diren eskaera guztiak, ondotik agertzen den taulan agertzen diren zertzeladen arabera:

Prozedura	Jakinarazte-epaia	Isiltasunaren esanahia
Etxebizitza babestuen eta etxebizitza-birgaitzeen behin-behineko kalifikazioa.	3 hilabete	Ezespena.
Etxebizitza babestuen eta etxebizitza-birgaitzeen behin betiko kalifikazioa.	3 hilabete	Ezespena.
Etxebizitza egokirako eskaera, foru lege honen 33. artikulua araberakoa.	6 hilabete	Ezespena.
Etxebizitza babestuak erosteagatik diru-kopuruak kontura jasotzeko baimena.	3 hilabete	Baiespena.
Etxebizitza babestua esleitzeko eta alokatzeko kontratua sinatzeko baimena.	2 hilabete	Baiespena.
Jakinarazpenak, foru lege honek aurreikusten duen lehentasunez erosteko eta atzera eskuratzeko eskubidea baliatzearen ondorioetarako.	60 egun	Uko egitea.
Etxebizitza babestuak salerosteko, esleitzeko edo errentan emateko kontratuak ikus-onestea.	2 hilabete	Ezespena.
Zuzeneko laguntza ekonomikoak ematea babestutako etxebizitzaren sustatzaileei, erosleei, erabiltzaileei eta esleipen-hartzaileei, eta etxebizitzak birgaitzeko.	6 hilabete	Ezespena.

Sei. 7. artikuluko 3., 4., 9. eta 10. apartatuak aldatzen dira. Honela gelditzen dira idatzita:

“3. Babes ofizialeko etxebizitzak honela kalifikatuko dira:

- Jabetza-araubidekotzat. Horien titulartasuna erabatekoa nahiz azalera-eskubideduna izan ahalko da.

- Errentamendu-araubidekotzat.
- Errentamendu ordainerrazeko araubidekotzat.
- Erabilera-lagapeneko araubidekotzat.

Prezio tasatuko etxebizitzak jabetzako edo azalera-eskubideko araubidekotzat bakarrik sailkatu ahalko dira”.

“4. Babes ofizialeko etxebizitzatzat hartuko dira behar den kalifikazioa lortzen dutenak, legez eta erregelamenduz etxebizitza babestuaren mota honetarako ezarritako betekizunak betetzeagatik lortu ere. Babes ofizialeko etxebizitzak metro koadro erabilgarriaren amaiera-prezioa ez da ezein kasutan handiagoa izanen etxebizitza den horretarako eta erantsitako garajerako modulu haztatu indarduna halako 1,30 baino. Era berean, beste eranskin batzuetarako erabiltzen den metro koadro erabilgarriaren gehieneko prezioa ez da handiagoa izanen tipologia honetako etxebizitzetarako erabiltzen den metro koadro erabilgarriaren gehieneko prezioaren 100eko 40 baino.

Lurzoruaren eta urbanizatzearen kostuak gehieneko salmenta-prezioan izanen duen eragina, erregelamenduz ezarritakoaren arabera, ez da handiagoa izanen 100eko 17,5 baino, edo 100eko 30 baino, sustapenaren xedea alokairuko etxebizitzak direnean, planeamenduak babes ofizialeko etxebizitzak sustatzeko erreserbatu ez dituen lurzatiaren erakirik. Aurreikuspen hauek ez zaizkie aplikatuko administrazio publikoek edo haien mendeko sozietate publikoek sustaturiko etxebizitzajarduketari.

“9. Etxebizitzaren kalifikazioak barne har dezake eraikin oso bat edo horren parte bat, berria nahiz lehendik dagoena, eta eraikintzat ulertzen da etxebizitza-ezkaratz oso bat. Eraikin berean egon ahalko dira:

- babesturiko etxebizitza-mota desberdinak, hirigintza-araudiak horretarako modua ematen badu; kasu horretan, lurzoruaren eta urbanizatzearen kostuaren gehieneko jasanarazpenaren baldintza izanen da zein eta prezio tasatuko etxebizitzari aplikatzen zaiena.

- etxebizitza libreak eta babestuak, baldin hirigintza-araudiak horretarako modua ematen badu. Kasu horretan, lurzoru- eta urbanizatze-kostuaren gehieneko jasanarazpenaren baldintza ez da aplikatzekoa izanen.

Halaber, lurzoruaren eta urbanizazioaren kostuaren gehieneko jasanarazpenaren betebeharra ez da aplikatzekoa izanen lehenagotiko eraikin, establezimendu edo lokal baten osotasunaren edo parte baten erabilera aldatzetik abiatuta sorturiko etxebizitza babestuen kasuan”.

“10. Errentamenduko araubidekotzat edo errentamendu ordainerrazeko araubidekotzat kalifikaturiko babes ofizialeko etxebizitzak kasuan, haien errentamendurako izatearen iraupena hogeita bat urtekoa izanen da gutxienez ere, haien behin betiko kalifikazioaren egunetik aurrera zenbatuta. Gutxienezko epe hori igarota, zilegi izanen da salmentara atereak izatea, etxebizitza babestuen bigarren eskualdaketan jabetza eskuratzeko baldintzekin, eta, lehenbiziko eskualdatzean bakar-bakarrik, prezio tasatuko etxebizitzari aplikatzekoa zaien gehieneko prezioa aplikatuta”.

Zazpi. 9. artikuluar 4. apartatu berri bat gehitzen zaio. Hona edukia:

“4. Gazteentzako errentamendu-apartamentu babestuen azalera erabilgarria zenbatetsiko da etxebizitza babestuei aplikatzekoa den araudi orokorrean xedatuari jarraituz, eta etxebizitzaren azalera gehituko zaio apartamentu bakoitzaren azalera pribatibotik kanpo kokatuta dauden sukalde, jangela, egongela eta erabilera amankomuneko aretoen azalerei dagokien parte proportzionala. Apartamentuek babes ofizialeko etxebizitzetarako ezarritako dauden gutxienezko diseinu-baldintzak bete beharko dituzte”.

Zortzi. 10. artikuluko 1. apartatuari g) eta h) letra berriak gehitzen zaizkio, eta 2. apartatuari, f) letra berria, honako eduki honekin:

“g) Babes ofizialeko etxebizitzaren azalera-eskubideak eskualdatzeko kontratuei aplikatzekoa zaien gehieneko salmenta-prezioa izanen da babes ofizialeko etxebizitza berri edo erabilientzat, kasuan kasu, erabateko jabetza eskualdatzeko ezarritakoaren % 95ekoa.

Etxebizitzaren alorrean eskumena duen departamentuko kontseilariaren foru agindu bidez onetsiko da kasuko balio gabetze-taula, azalera-eskubidea eratu zenetik iragandako urteen kopuruaren arabera eta/edo aipatu azalera-eskubidea

iraungitzeko oraindik iragan behar diren urteen kopuruaren arabera. Hori aplikatuko da aipaturiko hasierako gehieneko prezioaren gainean.

"h) Kooperatibek sustaturikoak diren erabilera-lagapeneko araubideko babes ofizialeko etxebizitzaren kasuan, kooperatiba horietako bazkideek hipoteka-mailegua amortizatzeko ordaindu beharreko kuotak ezin izanen du gainditu errentamendu ordainerrazeko araubideko babes ofizialeko etxebizitzentzat ezarritako gehieneko errentamendu-prezioa. Behin mailegu hori amortizatuta dagoenean, kuotak behar adinakoa beharko du izan, kasua bada kanona ordaintzeko, eta ezin izanen da gainditu gehieneko errentamendu-prezio hori. Erabilera-eskubidearen aurrerantzeko eskualdatzei dagokienez, kostu-balioak ezin izanen du gainditu babes ofizialeko araubidekoak diren salmenta-etxebizitzentzat ezarritako gehienekoa".

"f) Errentamendu ordainerrazeko araubidekoak diren babes ofizialeko etxebizitzaren errentamendu-kontratuei aplikatzeko den hasierako hilabete-errentaren gehieneko prezioa izanen da 8,25€/etxebizitzaren m² erabilgarri; 72,47 € garaje-plazagatik; eta 2,41€/ trastelekuaren eta gainerako eranskinen m² erabilgarriko. Prezioa % 2 eguneratuko da urterik urte.

Errentamendu ordainerrazeko araubidea duten babes ofizialeko etxebizitzaren errentamendurako kontratuei aplikatzeko zaien hasierako hileroko errentaren gehieneko prezioa izanen da 8,25 €/etxebizitzaren m² erabilgarri, 72,47 € garaje-plazako, eta 2,41 €/ trastelekuaren eta gainerako eranskinen m² erabilgarri. Prezioa % 2 eguneratuko da urterik urte.

Bederatzi. 13. artikulua izena eta 1. eta 2. apartatuak aldatzen dira, eta testu hau izanen dute:

"13. artikulua. Etxebizitzak alokatzeko bitartekotza publikoko programa: Alokairu Poltsa.

1. Nafarroako administrazio publikoek etxebizitzak alokairua sustatuko dute, Alokairu Poltsan sar daitezten.

2. Etxebizitzaren arloan eskumena duen departamentuak zilegi izanen du etxebizitzak merkatuko prezioetan bereganatzea, errentan nahiz erabilera-lagapenean, gero berriz alokairuak edo beste erabilera-lagapen batzuk eskaini ahal izateko, prezio babestuetan, kasuko prezio-diferentziak ordainduz.

Kudeatzea bitarteko propioen nahiz besteren bidez egin ahalko da, eta ez da aplikatzekoa izanen ente instrumental baten ardurapean utzazten duen erregelamenduzko betebeharra. Era berean, ente instrumental bati nahitaez enkargua egin beharri buruzko gainontzeko erreferentziak ez dira aplikatzekoak izanen".

Hamar. III. Titulua aldatzen da. Hona testu berria:

"III. Titulua Etxebizitza babestua lortzeko baldintzak

I. Kapituluua. Etxebizitza babestuen sustapen-tan parte hartu ahal izateko betebeharrak.

17. artikulua. Etxebizitza babestua lortzeko betebeharrak orokorrak.

Edozein delarik ere eskurapen-titulua, honako hauek dira etxebizitza babestu bat lortzeko eta finantzaketa publikoa izateko gutxieneko betebeharrak:

1. Etxebizitza-beharrak dagoela frogatzea, Titulu honen artikuluetan ezarritakoaren arabera.

2. Etxebizitzaren eskuratzailerak, esleipen-hartzaileak, norberaren erabilerarako sustatzaileak, errentariak edo onuradunak ohiko bizileku iraunkorrerako erabiltzea etxebizitza.

3. Etxebizitzaren esleipen-hartzailea edo errentaria Etxebizitza Babestuaren Eskuratzaileraren Zentsuan inskribaturik egotea.

4. Etxebizitzaren eskuratzailerak, esleipen-hartzaileak, norberaren erabilerarako sustatzaileak, errentariak edo onuradunak etxebizitza-araubide bakoitzerako eta laguntza-mota bakoitzerako kasuan kasu ezartzen diren diru-ahalmeneko betekizunak bete ditzala, bakoitzak dituen familia diru-sarreraren eta, hala badagokio, ondarearen arabera.

5. Etxebizitzaren eskuratzailerak, esleipen-hartzailea, norberaren erabilerarako sustatzailea, errentaria edo onuraduna, edo familia-unitateko beste edozein kide, barne harturik seme-alaba amankomunekin batera bizi den bizikidea, nahiz eta ezkontza-loturarik edo bikote egonkorrik ez egon, ez izatea beste etxebizitza baten edo haren zati alikuota baten jabariaren titularra, ez eta hura erabili edo gozatzeko eskubide baten titularra ere, salbu eta bi betebeharrak hauek batera betetzen badira:

a) Erregelamenduz ezartzen diren inguruabarraren arabera, etxebizitza hori ez izatea egokia familia-unitatearen beharretarako.

b) Etxebizitza edo haren zati alikuota Nafarroako Gobernuari, eginkizun horiek hartzen dituen Nafarroako Gobernuaren sozietate instrumental bati, etxebizitza kokatzen den udalari edo udal horren sozietate instrumental bati eskaintzea. Etxebizitza baten jabetza soila edo haren zati alikuota eskaintzen bada, esleipen-hartzaileak, aipatu den eskaintza egin aurretik, modu fede-emaile baten bidez frogatu beharko du etxebizitza-zati alikuota gainerako titularkideei eskaini zaiela, edo kasua bada, jabetza soila, haren gozamedunari. Era berean, ezkontideak banantzeko edo dibortziatzeko epai baten ondorioz etxebizitza erabiltzeko debekua bi urtetik gora ezarrita izateagatik etxebizitza desegokia duten titularren kasuan, etxebizitzaren jabeak modu fede-emaile baten bidez frogatu beharko du etxebizitzaren erabilera esleitua duen pertsonari eskaini zaiola etxebizitza.

Etxebizitza libreak badira, eskaintzetan, bi prezio hauetatik altuena erabiliko da:

Katastroko balioari dagokion balio bera.

Ponderatu gabeko modulua 1,1 koefizientearekin eta etxebizitzaren azalera erabilgarriarekin biderkatzearen ondoriozko balioa.

Etxebizitza librea familia ugari baten bizilekua denean eta hark etxebizitza babestu bat eskuratzeko behar adina diru-sarrerarik ez duenean, zilegi izanen da etxebizitza librearen prezioa igotzea, erregelamendu bidez ezarritako balditzetan hain zuzen ere, baina prezio hori ez da inola ere izanen merkatuko prezioan salduta lor litekeena baino handiagoa.

Babes publikoko araubideren baten pean dauden etxebizitzaren kasuan, bigarren eskualdaketa aplikagarri den gehieneko prezioan eskainiko dira.

6. Etxebizitzaren eskuratzailak, esleipen-hartzaileak, norberaren erabilerarako sustatzaileak, errentariak edo onuradunak, edo haren familia-unitateko beste edozein kidek, barne harturik seme-alaba amankomunekin batera bizi den bizikideak, nahiz eta ezkontza-loturarik edo bikote egonkorrik ez egon, azken bost urteetan eskualdatu ez izana etxebizitzaren baten edo horren zati alikuotaren gaineko jabari osoa edo erabilera- edo gozatzeko eskubide bat. Betebehar horretatik salbuesten dira 100.000 euro baino gehiagoko diru-sarrerarik sortu ez duten eskualdaketak.

"7. Etxebizitzaren eskuratzailak, esleipen-hartzaileak, norberaren erabilerarako sustatzaileak, errentariak edo onuradunak bere burua betebeh-

arretara lotzeko legezko gaitasuna izatea, eta Nafarroako udalerriren batean erroldatuta egotea.

Atzerriko nafar egoiliarrek, Espainian egindako azkeneko erroldatzea Nafarroako udalerrri batean egin bazuten, ez dute erroldatze-betebehar hori bete beharko.

"18. artikulua. Etxebizitza babestua lortzeko betebehar espezifikoak.

1. 17. artikuluan ezarritako betebehar orokorrez gainera, hauek dira babes ofizialeko etxebizitza bat lortzeko betebehar espezifikoak:

a) Jomuga diren pertsonen familia-dirusarrera ponderatuak txikiagoak izatea ERREGEROSNA-Errenta Egokiagatik Erosahalmen Nahikotasunaren adierazlea bider 4,5 baino.

Errentamendu-araubideko etxebizitzaren kasuan, jomuga diren pertsonen familia-dirusarrera ponderatuak egon beharko dira b) apartatuan eskatzen den gutxienekoaren eta ERREGEROSNA-Errenta Egokiagatik Erosahalmen Nahikotasunaren adierazlea bider 2,5 eginda lortzen den emaitza baino txikiagoen artean.

Errentamendu ordainerrazeko araubideko etxebizitzaren kasuan, jomuga diren pertsonen familia-dirusarrera ponderatuak handiagoak izan beharko dira ERREGEROSNA-Errenta Egokiagatik Erosahalmen Nahikotasunaren adierazlea bider 2,5 baino, eta txikiagoak adierazle hori bider 4,5 baino.

b) Jomuga diren pertsonen gutxieneko diru-sarrerak 19.000 euro baino gehiagokoak izatea jabetza-araubidean, errentamendu ordainerrazeko araubidean eta erabilera-lagapeneko araubidean, eta 5.000 euro baino gehiagokoak, errentamendu-araubidean.

2. Era berean, hauek dira prezio tasatuko etxebizitza bat lortzeko betebehar espezifikoak:

a) Jomuga diren pertsonen familia-dirusarrera ponderatuak txikiagoak izatea ERREGEROSNA-Errenta Egokiagatik Erosahalmen Nahikotasunaren adierazlea bider 6,5 baino.

b) Jomuga diren pertsonen gutxieneko diru-sarrerak handiagoak izatea 24.000 euro baino, jabetza-araubidean.

3. Diru-sarrerak eta familia-dirusarrera ponderatuak zenbatuko dira lege honek eta Etxebizitzaren arloko Jarduketa Babesgarriak arautzen dituen irailaren 18ko 61/2013 Foru Dekretuak edo

horren orde ematen den erregelamendu-arauak xedatuari jarraikiz.

Betiere kontatuko dira seme-alaba amankomunekin batera bizi diren bizikideen familia-dirusarreak ere, nahiz eta ez egon ezkontza-loturarik edo bikote egonkorrik.

19. artikulua. Gutxieneko betebeharrak batzuk betetzetik salbuesteko kasuak.

Erregelamenduz ezartzen ahal diren beste salbuespen batzuk ezertan galarazi gabe, hauek dira etxebizitza babestua lortzeko foru lege honetan ezarritako gutxieneko betebeharrak jakin batzuk betetzetik salbuesteko kasuak:

a) Esleipen prozesua egin ondoren, Zentsuan inskribaturik dauden eskatzaileen kopurua esleitu beharreko etxebizitza babestua baino txikiagoa den sustapenetan, etxebizitza guztien edo batzuen esleipena hutsik gelditu dela adierazten denetik hiru hilabete igaro ondoren, sustatzaileak eskatzen ahalko dio etxebizitzaren arloko eskumena duen departamentuari eskatzaileak gutxieneko diru-sarrerak frogatzeko betebeharratik salbuesteko, bai eta Nafarroako udalerrri batean erroladatuta eta Zentsuan egoteko betebeharratik ere.

b) Gutxieneko diru-sarrerak frogatzearen betebeharratik salbuespena daude etxebizitza babestua 26. artikuluko a), b), e) eta f) letretako erreserbaren bidez lortzen duten eskatzaileak, bai eta foru lege honen 29.1 artikuluan aurreikusitako erreserba berezian bidez lortzen dutenak ere.

c) Etxebizitza babestua alokairu-araubidean lortzen duten genero-indarkeriaren biktimei ez zaie eskatuko beste etxebizitza baten edo haren zati alikuota baten jabariaren titularrak edo hura erabili eta gozatzeko eskubidearen titularrak ez izatea agintzen duen betebeharrak, ez eta etxebizitza babestua etxerik aldarazi behar izateagatik erreserbaren bidez eskuratzen dutenei ere, beti ere konpromisoa hartzen badute etxebizitza hutsen alokairurako bitartekaritza publikoko programa edo Alokairu Poltsari lagatzeko eskubide horien xede duten etxebizitza.

II. Kapituluak. Etxebizitza babestuaren eskatzaileen zentsua

20. artikulua. Etxebizitza Babestuaren Eskatzaileen Zentsua.

1. Etxebizitzaren arloan eskumena duen departamentuak, zehazten dituen bitarteko propioen edo besterenen bidez, zentsu bat sortu eta eguneratu-

rik eramanen du, helburu hauekin: etxebizitza babestuak esleitzea, etxebizitza babestuaren eskariaren eta sustapenen gaineko datuak eta baremoei buruzko informazioa zentralizatzea, eta, orobat, etxebizitza arloan azterlanak, proposamenak eta proiektuak prestatzeko interesekoak diren datuak biltzea. Datu horiek erabiliko dira higiezin merkatuko eskariaren bilakaera eta merkatu horren egoera aztertzeko, foru lege honen hirugarren xedapen gehigarrian ezarritako ondorioetarako.

2. Aurrekoa gorabehera, zilegi izanen da Nafarroako administrazio publikoen titulartasunekoak edo haien menpeko sozietate publikoen titulartasunekoak diren etxebizitza babestuak prekario-araubidean esleitzea denboraldi baterako, ohiz kanpoko zenbait inguruabar aintzat harturik, haien errentamendu- edo jabetza-araubideko esleipena behin-behineko eragozten dutenak; horretarako, beharrezkoa izanen da haien onuradunak gizarteratze- edo gizarte-laguntzako jarduketa berariazkoetan sartuta egotea, etxebizitzak kokatuta dauden udalak edo Nafarroako Gobernuak eginikoak.

3. Etxebizitza alorreko eskumena duen departamentuak jendaurrean jarriko ditu, foru lege honen 37. artikuluan arautzen den webgunearen bidez, eskueran dituen informazioak, sustapen bakoitzean egindako erreserbei, baremoei, etxebizitza-kopuruari, etxebizitzak emateko aurreikusitako datai eta sustapenaren beste ezaugarri batzuei buruzkoak. Datu horiek eguneraturik eta eskueran edukiko dira abian diren sustapen guztietarako.

21. artikulua. Izena emateko eskabidea.

1. Foru lege honetan etxebizitza babestua lortzeko gutxieneko betebeharrak betetzen dituzten pertsonak beste inork ez du eskubiderik Etxebizitza Babestuaren Eskatzaileen Zentsuan izena emateko. Izen-emateak ez du sortzen, bere horretan, foru lege honek edo bera garatzeko araudiak aurreikusitakoez bestelako eskubiderik, eta berekin ez dakar etxebizitza babestuaren esleipen automatikorik.

2. Etxebizitza Babestuaren Eskatzaileen Zentsuan izena emateko eskabidea behar bezala beteta aurkeztuko da, xede horrekin prestatuko den formularioari jarraikiz, eta telematikoki eginen da, baldin eta jabetza-araubideko, errentamendu-araubideko nahiz errentamendu ordainerrazeko araubideko etxebizitza babestua eskatzen bada. Hala ere, inskripzioa presentzialki egitea ere ahal-

bidetuko da, errentamendu-araubideko etxebizitzetarako eskaeren kasuan.

3. Pertsona bera ezin da etxebizitza-eskatzaille gisa agertu Zentsuan izena emateko eskabide bat baino gehiagotan, eta eskabide bakoitzeko gehieneko eskatzaile-kopurua bi eskatzailekoa izan da. Baldintza horiek ez badira betetzen, eskatzailea edo eskatzaileak baztertuak izan dira.

4. Izena emateko eskaeran nahitaez adierazi beharko da zer eremu geografiko edo udalerritako etxebizitza babestua esleitu izatea nahi den, bai eta etxebizitza-tipologia eta haren araubidea ere.

5. Zentsuan izena ematearekin, etxebizitza babestuaren eskatzaileak erantzukizuna hartzen du aurkezten dituen datuen eta eskatzen duen puntuaren egiazkotasunari buruz, bai eta etxebizitza lortzeko gutxieneko betebeharrak betetzeaz ere.

6. Izena emateko eskabidea aurkezteak berekin dakar baimena ematea etxebizitzaren arloan eskumena duen departamentuari eta, kasua bada, Zentsua kudeatzen duen organoari, Nafarroako Gobernuko gainerako departamentuei edo beste administrazio publiko batzuei datuak eskatu ahal izan diezazkieten, etxebizitza esleitu eta laguntzak emateko orduan muntadun direnak.

7. Izena emateko eskaeran datuak ezkutatzek edo aitorten faltsuak egiteak, hala nola agiriak faltsutzeak, berarekin ekarriko du eskatzaileak Zentsutik bazter uztea, eta horrek ezarriko diren ondorioak izan ditu.

22. artikulua. Zentsuan irautea.

1. Izen-ematea bi urtean behin berritu beharko da. Izen-ematea indarrean dagoen bitartean, Zentsuan dauden eskatzaileek Zentsuaren kudeaketa-organuari jakinarazi beharko dizkiote beren egoera pertsonalean, familiakoan edo ekonomikoan izaten diren aldaketen datu guztiak, betekizunetan eta eskaeren baremazioan eraginik izan badezaket. Jakinarazpena aldaketa horiek gertatu eta bi hilabeteko epean egin beharko da. Betebehar hori betetzen ez bada, eskatzailea Zentsutik baztertu da, betiere horren berri ez emateagatik eskatzaileak onuraren bat lortzen baldin badu baremazioan.

2. Eskatzaileen eskaeren baremazioa zentsuan agertzen diren datuetan oinarrituz ateratzen den puntuazioaren arabera eginen da behin-behinekoz, deusetan galarazi gabe kontratua sinatzeko edo, kasua bada, ikus-onesteko baimena eman aurretik datu horiek egiaztatzea.

3. Eskatzaileen Zentsutik baztertua izanez gero, eskatzaileak ezin izanen du berriz izena eman gutxienez hiru hilabete igaro arte, salbu eta foru lege honetako 24. artikuluko 1. apartatuko a) letran ezarritako kasuan.

23. artikulua. Izena eman beharra esleipena egiteko.

1. Etxebizitza babestuen esleipena eginen da, bakar-bakarrik, erregelamenduz ezarriko den antzintasunarekin Zentsuan etxebizitza babestuaren eskatzaile gisa izena eman duten eskatzaileen artean.

2. Erregelamenduz garatzen dena deusetan galarazi gabe, kasu hauetan ez da beharrezkoa izan Etxebizitza Babestuaren Eskatzaileen Zentsuan izena ematea:

a) Etxez aldarazi behar diren pertsonak.

b) Partikularren arteko bigarren eskualdaketa baten ondorioz, etxebizitza babestuen erosleak eta errentariak.

c) Norberak erabiltzeko, familia bakarreko etxebizitza bat egin duten sustatzaileak.

d) Gizarte integrazioarako berriazko programe-tan sartuta dauden pertsonak.

e) Etxebizitza babestuak elkarrekin trukatzeko dituzten pertsonak.

f) 7. artikuluko 6. idatz-apartatuan aurreikusitako mota berezietara biltzen diren pertsonak, salbu eta 60 urtez gorako pertsonentzako edo desgaitasunaren bat duten pertsonentzako alokairuzko apartamentuen sustapenen kasuan.

g) Irabazi-asmorik gabeko elkarte pribatuen erabilera-lagapeneko araubidedun babes ofizialeko etxebizitzaren sustapenetan sartzen diren pertsonak, eta kasuko etxebizitza-esleipen prozeduraren ondoren etxebizitza huts gisa deklaraturiko etxebizitzak eskuratzen dituztenak.

3. Salerosketa-araubidekotzat kalifikaturiko etxebizitzaren kasuan, zilegi izanen da esleipenetik salbuetsia izatea eskatzea, eskatzaileen zentsuan izena emandako pertsonen artean, baldin eta esleikizun diren etxebizitza babestuen guztizko kopurua hirukoa edo txikiagoa bada. Etxebizitza alorreko eskumena duen zuzendari nagusiaren ebazpen bitartez salbuespena xedatzen bada, erosleek ez dute eskubiderik izan etxebizitza babestuaren eskuratzaileentzat edo esleipen-hartzaileentzat aurreikusitako dirulaguntzak lortzeko.

24. artikulua. Zentsutik baztertea.

1. Hauek dira Etxebizitza Babestuaren Eskatzaileen Zentsutik baztertzeko arrazoiak, erregelamenduz ezartzen diren beste batzuk ukatu gabe:

a) Eskatzailearen esanbidezko borondatea.

b) Etxebizitza babestu baten salerosketa-, esleipen- edo errentamendu-kontratuaren ikus-onespena.

c) Esleitua izandako etxebizitza babestu bati arrazoi justifikaturik gabe uko egitea, erregelamenduz ezarri adina aldiz. Era berean, uko egitea justifikatzen duten arrazoiak zeintzuk diren ezarriko da.

d) Zentsuan izena emateko eskubidea izateko baldintzak gerora gertatutako arrazoiengatik ez betetzea.

e) Izen ematea ezeztatzea, gero egiazta-tzeagatik zentsuan egoteko baldintzak ez zirela hasieratik bete.

f) Zentsuko inskripzioaren indarraldia ez berri-tzea, foru lege honen 22. artikuluan ezarritako bi urteko epean.

g) Etxebizitza babestuaren eskatzaile gisa, eskaera batean baino gehiagotan agertzea.

h) Izena emateko eskaeran datuak ezkatzea edo aitorten faltsuak egitea, hala nola agiriak faltsutzea.

i) Eskatzailearen egoera pertsonalean, familiar-tekoan edo ekonomikoan izaten diren aldaketei buruzko datuak ez jakinaraztea hori gertatzen denetik bi hilabeteko epean, eskatutako betebeharreran edo eskaeren baremazioan eragina badute, betiere horren berri ez emateagatik eskatzaileak onuraren bat lortzen baldin badu baremazioan.

2. Etxebizitza Babestuaren Eskatzaileen Zentsutik baztertzearen ondorioak erregelamenduz arautuko dira.

3. Aurreko apartatuetan xedatua gorabehera, eskatzailea baztertua izanen da:

a) Kasuko etxebizitza-esleipeneko prozedura-ren hasieratik hiru urteko epean zehar, baldin uko egiten badio bere lehentasunen arabera izan eta jabetza-araubidekotzat kalifikatua den etxebizitza bati.

b) Kasuko etxebizitza-esleipeneko prozedura-ren hasieratik bi urteko epean zehar, baldin uko egiten badio bere lehentasunen arabera izan

eta errentamendu-araubidekotzat edo errenta-mendu ordainerrazeko araubidekotzat kalifikatua den etxebizitza bati".

III. Kapitulua. Esleipen-prozedura.

1. atala. Aurretiazko xedapenak.

25. artikulua. Esleipen-sistema.

1. Etxebizitza babestuak esleituko dira aurretiaz Etxebizitza babestuaren eskatzaileen Zentsuan inskribatuta dauden pertsonen artean, honako erregela hauei jarraikiz:

a) Jabetza osoko araubidekoak nahiz azalera-eskubidekoak diren etxebizitza babestuak foru lege honen 26. artikuluan jasotako erreserben arabera atxikiko dira, eta 28. artikuluan jasotako baremoari jarraikiz esleituko dira.

b) 29.1 artikuluan aipaturiko erreserba berezien barrenean jasota dauden errentamendu-araubideko eta errentamendu ordainerrazeko araubideko etxebizitza babestuak 30. artikuluan ezarritako baremoa aplikatuz izanen dira esleituak.

c) 29.2 artikuluan aipaturiko erreserba orokorren barrenean jasota dauden errentamendu-araubideko eta errentamendu ordainerrazeko araubideko etxebizitza babestuak zozketa bidez izanen dira esleituak.

2. Nafarroako Lurralde Estrategiako 10. eremu-ko 10.4 azpieremuan kokatuta ez dauden 10.000 biztanle baino gutxiagoko udalerrietan, etxebizitza arloko departamentu eskudunak baremoa aplikatetik edo zozketatik eta zentsuan inskribatu beharretik salbuetsi ahaliko ditu kasuan kasuko udalaren erroldan urtebeteko antzinatasun etengabea duten pertsonak ez bestek osatutako elkarte eta kooperatibek sustaturiko etxebizitzak.

25.bis artikulua. Erreserbei buruzko kon-tzeptuak.

Foru lege honetan ezarritako ondorioetarako:

1. Mugitzeko desgaitasun larritzat jotzen da beheko gorputz-adarrak ukitzen dituen, horren ondoriozko desgaitasun-maila 100eko 40koa edo handiagoa bada.

2. Terrorismoaren biktimatzat hartzen dira 100eko 65eko edo gehiagoko desgaitasuna dakar-ten ondorioak pairatzen dituzten pertsonak, bai eta hildakoen ezkontideak eta haien lehen mailako ahaideak ere, betiere ondorio horiek ofizialki ekin-tza terroristatzat aitortu direnenak izan badira.

3. Genero-indarkeriaren biktimatzat hartzen dira Nafarroako Gobernuaren departamentu eskudunak gai horri buruzko legeria espezifikoak aplikatuz halakotzat aitortzen dituen pertsonak. Erregelamenduz arautuko dira pertsona horiek jabetza edo errentamendua eskuratu ahal izateko inguruabarrak. Aurrekoa gorabehera, jabetza araubideko etxebizitza babestuak lortu ahal izateko, beharrezkoa izanen da edozein organo jurisdikzionalen epai irmoa egotea, pertsona hori genero-indarkeriaren biktima izan dela deklaratzeko duena. Epai hori emana izan beharko da genero-indarkeriaren biktima etxebizitzaren esleipen-hartzaile suertatzen den esleipen prozedura hasi aurreko bost urtean barruan. Genero-indarkeriaren biktimen familia-dirusarrerak haztatzeko orduan, kontuan hartuko dira desgaitasuna duten edo 65 urte baino gehiagokoak diren pertsonen aplikatzekoak zaizkien xedapen berak.

25.ter artikulua. Etxebizitzen banaketa, erreseben arabera.

Foru lege honetan jasotako erreseben arabera etxebizitza-banaketa honela egingen da:

Lehena. Ehun zenbakia zati sustapeneko etxebizitzen kopuru osoa egingen da. Zatidura hori foru lege honen 26. eta 29. artikuluen arabera erreseba bakoitzari dagozkion ehunekoei aplikatuko zaie, zatitzaile gisa. Hortik ateratzen den zifra osoa izanen da hasiera batean bakoitzari esleitzen zaion etxebizitza-kopurua.

Gutxienez etxebizitza bat dagokien erresebak baizik ez dira gaituko.

Bigarrena. Horrela atxiki gabe gelditzen diren jabetza-araubideko etxebizitza babestuak atxikiko zaizkio Nafarroako edozein udalerritan errolatuta daudenentzako erresebari, ezertan galarazi gabe 26.h) artikuluan ezarritakoa.

Erreseba bereziei atxiki gabe geratzen diren errentamendu-araubideko eta errentamendu ordainerrazeko araubideko etxebizitza babestuak erreseba orokorrei atxikiko zaizkie.

Hirugarrena. Sustapenetan ez da espazio- edo denbora-zatiketarik onartuko, erreseben eragin-kortasunari itzurtzeko asmoa antzematen bada.

2. atala. Jabetza-araubideko etxebizitzak.

26. artikulua. Erresebak.

Jabetza osoko araubideko edo azalera-eskubidedun araubideko etxebizitza babestuak honako erreseba hauen arabera atxikiko dira, esleituak izateko diren sustapenetako etxebizitzen kopuru osoari dagokionez:

a) Desgaitasuna duten pertsonak. % 6. Etxebizitza horiek adjudikatu ondoren, eta horien egitea amaituta ez baldin badago, horien eraikuntza adjudikazio-hartzailearen beharrian berariazkoetara egokituko da.

b) Aurreko erresebaren barrenean, adjudikatu beharreko etxebizitzak 2 edo gehiago direnean, sustapenean dauden etxebizitzen ehuneko 4 mugikortasunaren desgaitasun larria duten pertsonentzat erresebatuko dira. Horrelako eskatzaileak ez badago, etxebizitzak desgaitasuna duten gainerako pertsonentzat izanen dira.

c) Familia ugariak: % 3.

d) Terrorismoaren biktimak: % 3.

e) Genero-indarkeriaren biktimak: % 3.

f) Hirigintzagatiko etxe-aldaketek ukituriko pertsonak: aplikagarri den hirigintzako planeamenduen esparruaren barrenean jarduten duen administrazioak kasuan-kasuan hartzen dituen ebazpenen arabera, edo erakunde eskudunek horretarako sinatzen dituzten hitzarmenen arabera.

g) Nafarroako edozein udaletan errolatuak, baldin eta ez badaude h) letrako erreseban sarturik: gainerakoa % 100 osatu arte.

h) Hala badagokio, sustapena egiten den udalerriko erroldan gutxienez hiru urteko antzintasun etengabea dutenak, benetako bizilekua bertan izanda. Udal batek edo udal-sozietate publiko batek edo sozietate publiko batek sustaturiko babes ofizialeko etxebizitzak kasuan, horiek kokatuta daudenean lehen udalaren titulartasunekoak izan eta helburu honekin eskualdatuak izan ziren lurzoruetan, Udalak zilegi izanen du udalerrian errolaturiko pertsonentzat erresebatutako etxebizitzak kopurua erabakitzea.

27. artikulua. Errenta-tarteak.

Aurreko artikuluko g) eta h) letretan jasotako erreseben barrenean, etxebizitzak honako portzentaje hauen arabera banatuko dira:

1. Jabetza osoko araubidekoak diren etxebizitza babestuak:

a) Eskatzaileen diru-sarrerak direnean exijituriko gutxienekoaren eta ERREGEROSNA-Errenta Egokiagatiko Erosahalmen Nahikotasunaren adierazlea bider 3,5aren arteko familia-dirusarrera ponderatuak, babes ofizialeko etxebizitzak % 60 eta prezio tasatukoak % 20.

b) Eskatzaileen familia-dirusarrera ponderatuak direnean ERREGEROSNA-Errenta Egokia-

gatiko Erosahalmen Nahikotasunaren adierazlea bider 3,5 baino gehiagokoak, babes ofizialeko etxebizitzaren % 40 eta prezio tasatukoaren % 80.

2. Jabetza-araubideko etxebizitza babestuak, azalera-eskubidedunak:

a) Eskatzaileen diru-sarrerak direnean exijituri-ko gutxienekoaren eta ERREGEROSNA-Errenta Egokiagatiko Erosahalmen Nahikotasunaren adierazlea bider 2,5aren arteko familia-dirusarrera ponderatuak, babes ofizialeko etxebizitzaren % 30 eta prezio tasatukoaren % 20.

b) Eskatzaileen familia-dirusarrera ponderatuak direnean ERREGEROSNA-Errenta Egokiagatiko Erosahalmen Nahikotasunaren adierazlea bider 2,5aren eta bider 4,5aren artekoak, babes ofizialeko etxebizitzaren % 70 eta prezio tasatukoaren % 80.

28. artikulua. Baremoa.

Aurreko artikuluetako zehaztapenen arabera erreserba bakoitzean errenta-tarte bakoitzeko eskatzaileei dagozkien etxebizitzak zehaztu ondoren, jabetza osoko nahiz azalera-eskubideko jabetza-araubideko etxebizitza babestuen esleipena honako puntuazio hauen arabera egingen da:

1. Etxebizitza-beharrizan frogatua: 55 puntu gehienez, honela banaturik:

a) Zazpi puntu, eskaera sinatzen duen eskatzaile bakoitzeko eta haien familia-unitateetako kide bakoitzeko. Apartatu honetan xedatutakoaren ondorioetarako, eskatzailearen familia-unitatearen parte izanen dira ondorengo ahaide adingabeak, haien guraso-ahala eskatzailearen esku baldin badago, partekatua denean ere.

b) 10 puntu, etxebizitza libre edo babestu baten titularra izan eta bertan bizitzeagatik, aipatu etxebizitza desegokia denean azaleragatik, haren banaketagatik, edo desgaitasun bat duen eskatzailearen beharretara nahiz haren familia-unitateko kide desgaituren baten beharretara moldatu gabe egoteagatik, erregelamendu bidez ezartzen denarekin bat.

c) 10 puntu, etxebizitza-errentamendurako kontratu bat legez eta idatziz formalizatuta edukitzeagatik Alokairu Sistema Publikoaren barrenean.

c) 5 puntu, idatziz eta legez formalizatuta edukitzeagatik etxebizitza errentan hartzeko kontratua, Alokairurako Sistema Publikotik kanpo.

e) Bi puntu, beste familia unitate batzuen etxebizitzan bizitzeagatik.

f) Bi puntu, alokairuko etxebizitza batean legez bizitzeagatik idatzizko kontraturik gabe, lagapenez edo partekatuta.

b), c), d), e) eta f) apartatuetako puntuazioak ez zaizkio bata besteari metatuko eskaera berean.

2. Aurrezpen-kontu, kontu korrante, gordailu edo antzeko produktu finantzario baten titulartasuna, azken bost urtean, bertako saldoa 10.000 euro edo gehiagokoa denean urte bakoitzeko abenduaren 31n: urteko 3 puntu, gehienez ere 15 puntu bitarte.

3. Nafarroako udalerrri batean edo gehiagotan etenik gabe erroldatuta egoteagatik: 4 puntu, 4 urte baino gehiagokoa bada; 8 puntu, 8 urte baino gehiagokoa bada. Azken 10 urteetako erroldatzeak bakarrik hartuko dira kontuan.

4. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak jaulkitako familia gurasobakarraren agiriaren titular izateagatik: 7 puntu.

3. atala. Errentamendu-araubideko eta errentamendu ordainerrazeko araubideko etxebizitzak.

29. artikulua. Alokairu-erreserbak.

Errentamendu-araubideko eta errentamendu ordainerrazeko araubideko etxebizitza babestuak honako erreserba hauen arabera atxikiko dira, esleituak izateko diren sustapenetako etxebizitzaren kopuru osoari dagokionez:

1. Erreserba Bereziak, honela banaturik:

a) Gizarte-integratioko etxebizitzaren bat behar duten pertsonak: % 5. Erreserba hori handiagotu edo txikiagotu ahalko du etxebizitza-alorrean eskudun den departamentuak, antzematen diren premien arabera. Era berean, zilegi izanen da erreserba hori gaitzea etxebizitza babestuak hasiera batean esleitzean halako erreserbarik aurreikusita ez zeukaten sustapenetan.

b) Desgaituak: % 6. Etxebizitza horiek esleitu ondoren, eta horien egitea amaituta ez baldin badago, horien eraikuntza esleipen-hartzailearen beharrizan berariazkoetara egokituko da. Suertatzen den esleitu beharreko etxebizitza-kopurua 2 edo gehiagokoa denean, sustapenean dauden etxebizitzaren ehuneko 4 mugikortasunaren desgaitasun larria duten pertsonentzat erreserbatuko dira. Horrelako eskatzaileak ez badago, etxebizitzak desgaitasuna duten gainerako pertsonentzat izanen dira.

c) Familia ugariak: % 3.

e) Genero-indarkeriaren biktimak: % 6.

e) Hirigintzagatiko etxe-aldaketek ukituriko pertsonak: aplikagarri den hirigintzako planeamendua-
ren esparruaren barrenean jarduten duen adminis-
trazioak kasuan-kasuan hartzen dituen ebazpenen
arabera, edo erakunde eskudunek horretarako
sinatzen dituzten hitzarmenen arabera.

2. Erreserba orokorrak.

1. apartatuan zehazturiko erreserba berezietan
sartu ez diren etxebizitzak honela atxikiko dira:

a) 35 urteko edo hortik beherako edo 60 urteko
edo hortik gorako adina duten pertsonak: etxebizi-
tzen % 50. horietatik, % 40 atxikiko zaizkie susta-
penaren kokaleku den udalerrian gutxienez ere bi
urteko antzinasunez eta etenik gabe benetako
bizilekua duten erroldatuei.

b) Gainerakoa, esleitu beharreko sustapeneta-
ko etxebizitzak guztizko kopuruaren % 100era iri-
tsi arte. Etxebizitza horien % 40 atxikiko zaizkie
sustapenaren kokaleku den udalerrian gutxienez
ere bi urteko antzinasunez eta etenik gabe
benetako bizilekua duten erroldatuei.

30. artikulua. Erreserba berezietarako bare-
moa.

29.1 artikuluan aipaturiko erreserba berezietako
bakoitzaren barrenean jasota dauden errenta-
mendu-araubideko eta errentamendu ordainerra-
zeko araubideko etxebizitza babestuak foru lege
honen 28. artikuluan ezarritako puntuazio-bare-
moa aplikatuz izanen dira esleituak.

30.bis artikulua. Erreserba orokorretarako zoz-
keta.

1. 29.2 artikuluan aipaturiko erreserba oroko-
rretako bakoitzaren barrenean jasota dauden
errentamendu-araubideko eta errentamendu
ordainerrazeko araubideko etxebizitza babestuak
zozketa publikoz, telematikoki eta notario aurrean
esleituak dira, hautaturiko logela-kopuruaren ara-
bera.

2. Zozketa egiteko, bertan parte hartzeko zenba-
ki bat atxikiko zaio prozesuan sartuta dagoen per-
tsona edo familia-unitate bakoitzari, eta kode alfanu-
meriko bat, sustapeneko etxebizitza bakoitzari.

3. Prozeduran bilduta dauden pertsonen kopu-
ruak gainditu egiten badu sustapeneko etxebizi-
tzen kopurua, zozketa egin ondoren itxaron-
zerrenda bat prestatuko da, eta bertako partaide
izanen dira zozketan parte hartu ondoren etxebizi-
tzarik eskuratu ez dutenak.

4. atala. Esleipen-prozeduraren bilakaera.

31. artikulua. Esleipen-prozedura.

1. Etxebizitza babestuak esleitzeko prozedurak
urtero martxoaren 1ean, apirilaren 1ean, irailaren
1ean eta abenduaren 1ean hasiko dira, eta proze-
duran data horien aurreko egunera arte behin-
behineko kalifikazioa jaso duten jabetza araubide-
ko etxebizitza guztiak sartuko dira.

2. Eskaera bakoitza baloratuko da eska-
tzaileak, horretarako eskatzen zaizkion betebeharrak
guztiak betetzeagatik, parte hartzeko eskubidea
duen erreserba guztietan.

Mugitzeko desgaitasun larria duten pertsonen-
tzako erreserbaren barrenean, etxebizitza bereziki
moldatua eskuratu nahi dutenei, eta orobat, fami-
lia ugaria izateagatik, 90 metro koadro erabilgarri
baino gehiago dituzten etxebizitza nahi dutenei,
horrelakoak esleituak zaizkie, beste erreserba ba-
tuetan aukeratuak izaten badira ere.

3. Errenta tarte altuenean esleitu gabe uzten
diren etxebizitzak beherago dagoen hurrengo
errenta tartekoari gehituko zaizkio, eta alderantziz.

4. Puntu berdinketa izanez gero, familia-sarre-
ra ponderatu txikiak dituzten eskatzaileen alde
eginen da, eta berdinketak irauten baldin badu,
desgaitasunari eta familiaren osakerari buruzko iriz-
pideak baliatuko dira esleipena egiteko.

5. 90 metro koadro erabilgarri baino gehiagoko
etxebizitza babestuak familia-unitatean gutxienez
3 kide dituzten eskatzaileei edo mugikortasun-
muga larriak dituzten ezgaituei, bereziki gorpil-aul-
kiak erabiltzen dituztenei, esleituak zaizkie, salbu
eta esleipen-prozedura bukatutakoan etxebizitzak
esleitu gabe gelditzen badira.

6. Eskaera-baremazioaren prozesua bidezkoa
den kasuetan bukatutakoan, baldin eskatzaile-
kopurua handiagoa bada esleitu beharreko etxebizi-
tza-kopurua baino, hamar eguneko epea emanen
da foru lege honen 37. artikuluan aurreikusitako
webgunean argitaratutako iragarki baten bidez,
eskatzaileek alegazioak egiteko.

7. Etxebizitza arloan eskumena duen departa-
mentuak, aurkezten diren alegazioak ebatzi ondo-
ren, esleipen hartzaileen behin-behineko zerren-
dan dauden pertsonekin salerosketa edo
errentamendu kontratuak sinatzeko baimena ema-
nen du.

8. Etxebizitza babestuen esleipen-prozesue-
tan, eskatzaileak aurretiaz aukeratu duen susta-
pen zehatzean edo aukeratu dituen sustapen
zehatzetan bakarrik parte hartu ahalko du.

Horretarako, sistema telematiko bat antolatuko da, esleipenerako prozeduran parte hartzeko eskubidea duten eskatzaileek aukeratu dezaten zein sustapen zehatz hautatu nahi duten edo dituzten, alde aurretik sustapen horietako eskaintzaren gaineko azalpen zehatza eman denean.

32. artikulua. Kontratuaren ikus-onespena.

1. Erosketa edo errentamendu kontratuaren ikus-onespenean, etxebizitzaren esleipen hartzaileak frogatu beharko du foru lege honetan etxebizitza lortzeko eskatutako gutxieneko betebeharrak betetzen dituela eta baremoaren aplikazioaren ondoriozko puntuazioa zuzen lortu duela, hori guztia erregelamenduz ezarriko den epean.

Egiaztatuz gero eskatzaileak etxebizitza lortzeko gutxieneko betebeharren bat betetzen ez duela edo baremoaren aplikazioaren ondoriozko puntuazioa bidegabeki lortu dela eta, orobat, datuak ezkutatu badira, izena emateko eskaeran aitorten faltsuak egin badira edo agiriak faltsutu badira, kontratuaren ikus-onespena ukatuko da, arrazoi bidezko ebazpen baten bidez.

2. Era berean, kontratuak ikus-onestearekin, bermatuko da etxebizitzaren sustatzaileak etxebizitzak saldu edo errentan emateko foru lege honetan ezarritako informazio betebeharrak bete dituela.

33. artikulua. Trukatze bidezko esleipen-prozedura, etxebizitza babestua desegokia izateagatikoa.

1. Azalergatik, familia-unitateko kide desgaitu baten beharrezko tekniko moldatu ezinagatik edo, kasua bada, banaketagatik desegokia den etxebizitza babestu baten titularrak diren pertsonen zilegi izanen dute, etxebizitza babestuak lehenbiziko eskualdaketaren bidez jabetzan lortzeari dagokionez foru lege honek ezartzen dituen betebeharrak betetzen badituzte, esleitu zaien etxebizitza babestua beren beharrei egokitzen zaien beste batekin truka dakien eskatzea. Horretarako, etxebizitza arloan eskumena duen departamentuak eskatzaileari beste etxebizitza babestu egoki bat esleitzea ebatziko du. Etxebizitza hori udalerrin berean edo gehienez hogeit hamar kilometroko erradioko eremuan egonen da, etxebizitza desegokitik lerro zuzenean neurtua. Nafarroako Gobernuari, etxebizitza hori bereganatzeari dagokionez, legezko gehieneko prezioa aplikatuko zaio.

2. Artikulu honetan aurreikusitako ondorioetarako, eskatzaileak etxer aldarazitakoentzako erreserbako partaidetzat hartuko dira.

3. Eskatzaileak uko egiten badio eskaintzen zaien etxebizitza egokiari, ezin izanen du artikulu honetan ezarritakoaren babesean beste etxebizitza trukerik eskatu, ukoaren egunetik hasita hama-bi hilabete igaro arte.

4. Egiaztatzen denean eskatzailea erakunde terrorista baten jomugan dagoela edo genero indarkeriaren biktima dela, eta etxebizitza-aldaketa bere segurtasuna hobeki babesteko beharrezkoa dela, zilegi izanen da artikulu honetan jasotako ahalmena egikaritzea arau orokor gisa ezarritakoez bestelako kokaleku- eta epe-baldintzetan, kasu bakoitzean ebazten denari jarraikiz".

Hamaika. 36. artikuluko 4. apartatuko c) letra aldatzen da, eta apartatu horri e) letra berria gehitzen zaio. Hona edukia:

"c) Salmentaren edo errentamenduaren prezioa, oinarritzko finantzaketa-baldintzak, eta etxebizitza-alokairuko prezioen erreferentzia-indizea, bidezkoa denean".

"e) Eginiko etxebizitza-errentamenduko azken kontratuaren adostutako errenta".

Hamabi. 40. artikuluko 2. apartatuko c) letra aldatzen da, eta apartatu horri g) letra berria gehitzen zaio. Hona edukia:

"b) Errentaren guztizko prezioa eta errentariak bere gain harturiko beste kopuru batzuen, likidazioaren aldizkakotasuna adieraziz, bai eta etxebizitza-alokairuaren prezioen erreferentzia-indizea ere".

"g) Eginiko etxebizitza-errentamenduko azken kontratuaren adostutako errenta".

Hamairu. 41. artikuluari 4. apartatu berri bat gehitzen zaio. Hona edukia:

"4. Azalera-eskubidea eskualdatzeko kontratuaren, inguruabar hori esanbidez eta bereiz adieraziko da, kontratuaren orrialde bakoitzaren goiburuan edo orrialde-oinetan. Berariazko epigrafe batean, azalpen argi eta ulergarri bat jaso beharko da azalera-eskubidetzat zer jotzen den esplikatzeko, eta halaber zehaztu beharko dira horren epealdia, jabetza osoa eskuratzearekiko zer alde dagoen, bai eta azalera-eskubidearen indarraldian zehar gertatuko den balio-galera ere".

Hamalau. 42. bis artikuluko 1. apartatua eta 3. apartatuko a) eta b) letrak aldatzen dira, eta 4. apartatuari f) letra berri bat gehitzen zaio. Hona edukia:

"1. Titulu honen ondorioetarako, etxebizitzat hartzen da eraikin oro, zeinak, alde batera utzirik

beraren gaineko titulartasunaren portzentajea eta jabetza osoan nahiz indibisoan edukitakoa den, bere exekuzio-egoerarengatik legezko baimen guztiak baititu egiazki okupatuta egoteko, edo legezko baimen horiek eskatuak izateko moduan baitago, eta, aplikatzekoa den hirigintza planeamenduaren arabera, zehazturiko erabileratzat bizitokitarakoa baitu, edo bizitokitarako erabilera baimenduta baitauka erabilera-aldaketako hirigintza-lizentzia egokiaren bitartez, hiri-lurzoru edo lurzoru urbanizagarri gisa sailkatutako lurzoru batean. Aurrekoa ulertuko da baimen horiek eskatzeko betebeharra ezertan galarazi gabe".

"3. Honako hauek ez dira etxebizitza hustzat joko:

a) Ohiko etxebizitzak. Izaera hori ulertuko zaie titularren ohiko bizileku iraunkorra direnei, halakotzat deklaratzeko pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari dagokionez. Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari buruzko aitortpenik ez badago, titularren erroldako bizitoki gisa agertzen direnak, Nafarroako udalerrri batean. Aurreko datu horiek aplikatzea posible ez den kasuetan, ur-, argindar- eta, kasua bada, gas-horniduretan kontsumorik handiena duena.

b) Pertsona fisikoen etxebizitzak, aisialdi edo jolaserako erabilera dutenak. Halakotzat jotzen dira titularraren bigarren bizitokia direnak. Ondorio horietarako izaera hori izanen du bakarrik etxebizitza bateko pertsona edo familia unitate bakoitzeko. Pertsona edo familia unitate bat bi etxebizitzaren titularra bada, ulertuko da aisialdi edo jolaserako erabilerako etxebizitza dela aurreko puntuari jarraikiz ohiko etxebizitzaren izaerarik ez duena. Pertsona edo familia-unitate bat hiru etxebizitzaren edo gehiagoren titularra bada, ulertuko da aisialdi edo jolaserako erabileradun etxebizitza dela, ohiko etxebizitzaren izaerarik ez dutenetatik, ur-, argindar- eta, kasua bada, gas-horniduretan kontsumoa edukirik katastro-balio handiena duen etxebizitza".

"f) etxebizitza haiek zeinak, lurraldearen antolamendu eta hirigintzaren alorrean indarrean dagoen araudiaren arabera, ordenamenduz kanpoko egoeran egon eta bizigarritasun-zedularik ez baitute".

Hamabost. 42. quinquies artikuluko 10. apartatua aldatzen da, eta hauxe da testu berria:

"10. Etxebizitzan sei hilabetetik gorako epean egiazki bizi izan dela edo zaharberritze babestua behin-behineko kalifikazioaren eskaera egin dela ziurtaturik, prozedura artxibatuzko ebazpena emanen da. Hala egiten ez bada, aurreko aparta-

tuetan adierazitako epeak iragan badira jabeak komunikatu gabe egiazko bizitzaren egoera hasia dela, edo bizitze-aldi hori sei hilabetekoa baino laburragoa bada, edo etxebizitzaren zaharberritze babestuaren eskaera aurkeztu ez bada, prozedura berriz abiatuko da, eta etxebizitza hutsik dagoela deklaratzeko duen ebazpena emanen da, eta ebazpen horren berri Etxebizitza Hutsen Erregistroari emanen zaio, haren inskripzioa egin dezan.

Birgaituak diren etxebizitzaren kasuan, beharrezkoa izanen da eskaturiko birgaitze-lanak egin izanaren froga ematea, eta etxebizitzak egiazki biztanleak dituela sei hilabete baino gehiagoko denbora-epean. Obrak egin eta amaitzeko epea izanen da kasuko obra-lizentzian aipatutakoa, edo, kasua bada, hirigintza-araudian ezarritakoa. Baldin eta obrak ez badira epe horretan egiten, prozedurari jarraipena emanen zaio, etxebizitza hustzat deklaratzeko duen ebazpena jaulkiz, zeina Etxebizitza Hutsen Erregistroari igorriko baitzaio, inskribatua izan dadin.

Etxebizitza hori Alokairu Poltsari lagatzeko konpromisoa dagoenean, beharrezkoa izanen da frogatzea aipatu lagapena egiazki formalizatu dela gehienez ere sei hilabeteko epean, kasuko kontratua sinatuz. Baldin eta harturiko konpromisoa ez bada betetzen, prozedurari jarraipena emanen zaio, etxebizitza hustzat deklaratzeko duen ebazpena jaulkiz, zeina Etxebizitza Hutsen Erregistroari igorriko baitzaio, inskribatua izan dadin".

Hamasei. 45. artikuluko 2. apartatua aldatzen da. Honela gelditzen da idatzita:

"2. Eskualdaketa kostu bidezkoa bada, jakinarazpenean prezioa eta ordaintzeko proiektatutako modua eta eskualdaketa funtsezko baldintzak adieraziko dira, hala nola erosketako interesdunen identifikazio datuak. Gainera, berriaz adierazi behar da etxebizitza babestua gozatzeko eskatzen diren baldintzak betetzen direla. Orobat jakinaraziko da ea etxebizitza errentan emana dagoen ala ez, edo haren erabileran eragina izan dezakeen beste edozein eragozpenik edo mugapenik ba ote dagoen.

Etxebizitza alorreko departamentu eskudunak zilegi izanen du informazioaren edukia egiaztatzeke botereak egikaritzea, bai eta etxebizitzaren kontserbazio-egoera ikuskatzekoak ere".

Hamazazpi. 49. artikuluko 2. apartatua aldatzen da. Honela gelditzen da idatzita:

“2. Horretarako, etxebizitzaren arloan eskumena duen departamentuak zilegi izanen du izendatzea, eskubide horietaz baliatuta lortutako etxebizitzaren onuradun gisa, sozietate instrumental bat, erakunde publiko bat, irabazi-asmorik gabeko entitate bat edo etxebizitza babestuaren eskatzaile den pertsona edo familia-unitate bat, Etxebizitza Babestuaren Eskatzaileen Zentsuan izena emanda dagoena edo etxebizitza babestua desegokia izateagatiko esleipenerako prozeduran, zeina foru lege honen 33. artikuluan jasotzen baita, eskatzaile dena”.

Hemezortzi. 50. artikulua aldatzen da, eta testu hau izanen du:

“1. Etxebizitzaren arloan eskumena duen departamentuak etxebizitza babestuak lehentasunez erosteko legezko eskubidea erabiltzen ahalko du dagokion jakinarazpena egin eta biharamunetik hasita hirurogei eguneko epean, salbu eta jakinarazpenari zerbait falta baldin bazaio edo akatsen bat baldin badu.

Baldin departamentuak etxebizitzaren jabe nahiz edukitzaile diren pertsoneri errekerimendua egiten badie dokumentazio osagarria, etxebizitzan dauden pertsoneri buruzko informazioa eta haien tituluak aurkezteko, edo etxebizitzaren kontserbazio-egoera ikuskatzeko, aipatu epea eten eginen da errekerimenduaren jakinarazpenetik hasi eta ikuskapen-jarduketa egiten den edo kasuko dokumentazioa jasotzen den arte.

2. Etxebizitza babestuaren jabetza osoa eskualdatzen baldin bada, etxebizitzaren arloan eskumena duen departamentuak, lehentasunez erosteko eskubidearen erabileraz ezer erabaki baino lehen, egiaztatu beharko du Eskatzaileen Zentsuan ea eskualdatu nahi den etxebizitza kokatzen den udalerrri berean etxebizitza babestuaren eskatzailerik dagoen.

3. Etxebizitzaren eskualdatzailea behartuta egonen da ikuskapen-zereginak aurrera eramateko beharrezkoa den laguntza ematera.

4. Lehentasunez erosteko legezko eskubideaz baliatzeko epea bukatu baino lehen, etxebizitzaren arloan eskumena duen departamentuak interesdunari jakinarazten ahalko dio dagokion eskubideari uko egiten diola. Horrelakoetan, eskualdaketa berehala egiten ahalko da, non eta lehentasunez erosteko eskubidea hitzarmenez ezarrita ez dagoen.

5. Etxebizitzaren arloan eskumena duen departamentuak lehentasunez erosteko eskubidea

edo atzera eskuratzeko eskubidea erabiltzen baldin badu, eskubide hori erabiltzeko egintzan zehaztuko du etxebizitzaren onuradun gertatzen den sozietate instrumentala, erakunde publikoa, irabazi-asmorik gabeko erakundea edo familia-unitatea eskuratzeko-prezioa ordaintzeaz arduratu beharko dela, zenbateko hori etxebizitzaren eta, halakorik baldin badago, eranskinen saltzaileari zuzenean ordainduz”.

Hemeretzi. 64. artikulua 8. apartatua aldatzen da. Honela gelditzen da idatzita:

“8. Foru lege honen V. tituluko I. eta II. kapituluatan aurreikusita dagoen informazioa ez ematea publizitate-xede diren etxebizitzetan, edo horiek erosi edo errentan emateko, noiz eta ez-emate horrek ez baitu kontratuaren funtsezko baldintzen gaineko nahasdurarik sortzen”.

Hogei. 65. artikuluar 34, 35 eta 36. apartatu berriak gehitzen zaizkio. Hona horien testua:

“34. Administrazioak lehentasunez erosi edo atzera eskuratzeko eskubidea baliatzeko etxebizitza-ikuskapena eragozteko edo horretarako laguntza egokia ez ematea”.

“35. Etxebizitza-edukitzaile Handien Erregistroan inskribatzeko betebeharra ez betetzea”.

“36. Administrazioari datuak ematea errefusatzeko, informazio-, kontrol- edo ikuskapen-eginkizunak eragozteko edo ez erraztea, edo honako erregistro hauetan inskribatuak izan beharreko datuak egokiro jakinarazteko betebeharrak ez betetzea: Etxebizitza Hutsen Erregistroa, Nafarroako Etxebizitza-errentamenduko Kontratuen Erregistroa eta Etxebizitza-edukitzaile Handien Erregistroa.

“37. Foru lege honetan edo bere garapenerako arauetan ezarritako beste edozein baldintza, betebeharrak edo debeku urratzea, arau-hauste astunago gisa kalifikatuta ez dagoenean”.

Hogeita bat. 66. artikuluar 9. apartatu berri bat gehitzen zaio. Hona edukia:

“9. Foru lege honetako 3. quinquies artikulua arabera jazarpen edo diskriminaziozkoak diren ekintzak edo ez-egiteak aurrera eramatea”.

Hogeita bi. 90. artikulua aldatzen da, eta testu hau izanen du:

“1. Nafarroako Etxebizitza Errentamenduko Kontratuen Erregistroa eratzen da, izaeraz administratiboa eta deklaratiboa, eta nolakotasunez elektronikoa. Nafarroako Etxebizitza Erregistroan txertatuta egonen da, eta bertan inskribatu behar-

ko dira Foru Komunitatearen lurraldean kokatuta dauden etxebizitzaren errentamendu-kontratu guztiak, berdin delarik ohiko etxebizitzarako errentamendu-kontratuak nahiz denboraldiko errentamendurakoak izatea.

Hogeita hiru. 93. artikulua aldatzen da, eta testu hau izanen du:

“93. artikulua. Inskripzio-idazpena.

Inskripzio-idazpenean jasota utziko dira formalizaturiko errentamendu-kontratuen datuak, hala nola:

a) Finkaren kokalekua identifikatzeko datuak: udalerrria, katastro-erreferentzia, kalearen izena, finkaren zenbakia, eskailera, solairua eta atea.

b) Etxebizitza mota: kolektiboa edo familia bakarrekoa.

c) Azalpena, ohartarazten duena ea etxebizitza hori inolako babes publikoren pean dagoen, edo bitartekaritzarako nahiz etxebizitza libreak lagatzeko programa publikoren batean sartuta dagoen; baiezkotan, babes publikoaren mota, edo bitartekaritzanahiz lagapen-programa publikoarena, eta kasuko identifikazio-zenbakia.

d) Errentamendu mota: ohiko etxebizitza edo aldiakoa.

e) Kontratugileen identifikazioa: izena eta abizenak edo sozietate-izena, helbidea, identifikazio fiskaleko zenbakia, nortasun-agiriaren zenbakia edo, kasua bada, atzerritarraren identifikazio zenbakia edo pasaporte-zenbakia.

f) Kontratu-formalizazioaren eguna.

g) Kontratu-indarraldiaren eguna.

h) Adosturiko errenta.

i) Inskripzio-eguna.

j) Kontrol-zenbakia.

k) Fidantzaren zenbatekoa.

l) Beharrezkotzat jotzen den beste edozein.

Hogeita lau. 95. artikulua 1. apartatua aldatzen da. Honela gelditzen da idatzita:

“1. Jatorrizko kontratuko baldintzen aldaketak, barne harturik itundutako errentaren denboran zeharreko eguneraketak, errentatzailea behartuko du inskripzioa aldatzera eta agiri berri bat jaulkitzera”.

Hogeita bost. 96. artikuluko 2. apartatua aldatzen da. Honela gelditzen da idatzita:

“2. Ezerezte-idazpenean jasota utziko dira, guxtienez ere, kontratu-azkentzearen eguna eta inskripzioaren ezereztearen eguna. Muntadun jotzen diren beste datu batzuk ere jaso ahalko dira”.

Hogeita sei. 96. bis artikulua berria gehitzen da. Hona:

“96.bis artikulua. Erregistrarako sarbidea.

Zilegi izanen da kontsulta egitea errentei eta higiezinetik eratorritako gastu orokorrei buruz erregistroan dauden datuak, bai eta bertan inskribatuta dauden errentamendu-kontratuak eguneratze-klausulak ere.

Sarbide-eskaerak arrazoituta egon beharko dira, eta administrazio-prozedura erkideari buruzko araudiari jarraikiz aurkeztu beharko dira. Betiere izanen zaie aplikagarri izaera pertsonaleko datuen babesari buruzko araubidea”.

Hogeita zazpi. 96. ter artikulua berria gehitzen da. Hona:

“96. ter artikulua. Etxebizitza-errentamendurako fidantzak gordailutzeko betebeharra.

1. Etxebizitza-errentatzaile diren pertsona fisiko edo juridikoek etxebizitza-alorreko departamentu eskudunean gordailutu beharko dute Hiri Errentamenduei buruzko Legeak aipatzen duen fidantza, zeinaren kopurua izanen baita errentako hileroko bat, noiz eta etxebizitza ohiko bizileku iraunkor gisa alokatzen denean, edo errentako bi hileroko, urtebeteko edo gehiagoko denboraldirako alokatzen denean.

Gordailua doakoa izanen da, eta ez du interesik edo diru-sarrerarik sortuko gordailu-egile den errentatzailearen alde.

2. Errentamendu-kontratuaren azkentzearen jakinarazpenak ofizios emanen dio hasiera fidantza gordailutua itzultzeko prozedurari. Itzultze hori gehienez ere aipatu jakinarazpena egiten denetik hiru hilabeteko epean egin beharko da. Interesdun den gordailu-egileari egoztekoa ez den kausaz epe hori ez bada errespetatzen, haren aldeko interesak sortuko dira, diruaren legeko interesa aplikatetik eratortzen den zenbatekoan.

3. Fidantza gordailutzeko betebeharretik salbuesten dira administrazio publikoak eta haien erakunde autonomoak, zuzenbide publikoko entitateak, haien mendeko diren gainerako ente publikoak eta pertsona fisiko edo juridikoak, noiz eta kontratuaren xedea baita etxebizitza babestu bat, errentamendurako kalifikatua eta administrazioak ikus-onestearen betebeharrari lotua.

4. Fidantza-gordailutzea Nafarroako Zerga Ogasunaren zuzenbide publikoko diru-sarreratzat joko da. Aurrekoa ezertan galarazi gabe, Nafarroan etxebizitzaren arloko eskumena duen departamentuak zilegi izanen du gordailuturik dauzkan fidantzen zenbatekoa erabiltzea etxebizitzalorreko jarduketa babesgarriak finantzatzeko, eta diru-eskuragarritasunari eutsi beharko dio gordailuan utzitako fidantzen itzultzea bermatzeko moduan, baliabide horien % 15 baino gutxiagokoa ez den zenbatekoan.

5. Erregelamenduz zehaztuko dira fidantza-gordailutze prozedurak, bai eta horren kudeaketa, itzulketa eta kontrola ere. Bide beretik zabaltzen edo murrizten ahalko da fidantzak gordailutzeko betebeharretik salbuetsitako pertsonen multzoa, bai eta aurreko apartatuak aipaturiko itzultze-erreserbaren bermearen nahitaezko portzentajea ere".

Hogeita zortzi. 97. artikuluari 5. apartatu berri bat gehitzen zaio. Hona edukia:

"5. Zilegi izanen da erregelamenduz egokitzea foru lege honek ezartzen dituen dirulaguntzak eta gehieneko errenta- eta salmenta-prezioak, tentsiopeko etxebizitza-merkatuaren zonatzat artikuluhoni jarraituz deklaraturako eremuetarako".

Hogeita bederati. 99. artikulua berria gehitzen da. Hona:

"99. artikulua. Etxebizitza-edukitzaile Handien Erregistroa.

1. Etxebizitza-edukitzaile Handien Erregistroa eratzen da. Bertan nahitaez inskribatuko dira foru lege honen arabera edo tentsiopeko etxebizitza-merkatuaren zona izendatuz onesten den deklarazioaren arabera etxebizitza-edukitzaile handi diren pertsona fisikoak eta juridikoak.

2. Erregistroak izaera administratiboa du, eta etxebizitzaren arloko departamentu eskudunari atxikirik egonen da.

3. "Etxebizitza-edukitzaile handi" izaera duten pertsonak telematikoki inskribatu beharko dira, horretarako paratutako plataforma informatikoaren bitartez. Inskribatu beharreko gutxieneko zertzeladak izanen dira haien titulartasuneko etxebizitzaren kopurua eta zerrenda, etxebizitzaren tipologia, bai eta, errentan emanak baldin badaude, foru lege honen 90. artikuluan eta hurrengoetan arauturiko Errentamendu-kontratuen Erregistroan inskribaturiko kontratuen erreferentzia ere. Horrez gain, pertsona juridikoak behartuta egonen dira aipatu etxebizitzak kudeatzeko izendatu den enti-

tatea inskribatzera. Entitate horrek egoitza fisikoa izan beharko du Nafarroako Foru Komunitatean.

4. Etxebizitza-edukitzaile Handien Erregistroak datu-base informatizatu bat izanen du, eta bertan jasoko dira idazpen-mota desberdinak, hala nola inskripzioak, aldaketak, ezerezteak eta orri-bazterreko oharak.

Hogeita hamar. 100. artikulua berria gehitzen da. Hona:

"100. artikulua. Inskripzioak.

1. Inskripzioak dira entitate bat erregistroan lehenbizikoz sarrarazten duten idazpenak. Une horretan, erregistro-zenbaki bat esleitzen da, zeinak aldaezin iraunen baitu denboran zehar egiten diren elkarren segidako idazpenetan.

2. Inskripzioaren oinarritzat hartu ziren baldintzen aldaketa hilabeteko epean jakinarazi beharko da gertatzen denetik, eta horren arabera jokatu da, halako moldez non inskripzioa moldatu eginen baita jakinarazitako zertzeladei jarraituz.

3. Inskripzioek baliotasun zehaztugabea izanen dute, salbu eta aplikatzekoa den araudian ezarritako kausengatik bidezkoa denean haiek aldatuak edo ezereztuak izatea".

Hogeita hamaika. 101. artikulua berria gehitzen da. Hona:

"101. artikulua. Ezerezteak.

1. Ezereztearen helburua da inskripzio bat indargabetzea, inskripzio hori eginarazi zuten baldintzak desagertzeagatik.

2. Inskribaturako pertsona juridikoak behartuta egonen dira haien erregistro-inskripzioaren ezerezte eskatzera noiz eta beraiek etxebizitza-edukitzaile handi gisa sailkatuak izateko exijitzen diren inguruabar edo betekizunetako edozein betekizeari uzten diotenean.

Hogeita hamabi. 102. artikulua berria gehitzen da. Hona:

"102. artikulua. Kontrola eta ikuskapena.

Etxebizitza-alorreko departamentu eskudunak zilegi izanen du beharrezkoak diren kontrol- eta ikuskapen-jarduketak egitea, erregistro-datuak ziurtatzeko eta etxebizitza-edukitzaile handiek bete beharreko betekizunak eta betebeharrak bete egiten direla egiaztatzeko".

Berrogeita bi. Lehen xedapen gehigarria aldatu egiten da, eta honela geratzen da idatzita:

Lehen xedapen gehigarria. Etxebizitza babes-tuak partikularren arteko bigarren edo gehiagogarren eskualdaketa jabetzan lortzeko eta alokatzeko betebeharrak.

1. Bigarren edo gehiagogarren eskualdaketa jabetzan lortzeari dagokionez, honako hauek izanen dira etxebizitza babestua eskuratzeko gutxieneko betebeharrak:

a) Eskuratzailen familia-dirusarrera ponderatuak ez izatea ERREGEROSNA-Errenta Egokiagatiko Erosahalten-nahikotasun adierazlea halako 6,5 baino handiagoak, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren aitortpenak aurkezteko epea eskualdaketa egiten den egunerako bukatua daukan azkeneko zergaldian.

b) Eskuratzailak edo haien familia-unitatearen beste edozein kidek bete egin ditzatela foru lege honen 17. artikuluko 5, 6 eta 7. zenbakietan aipatutako betekizunak.

2. Etxebizitza babestua partikularren artean alokatzen baldin bada, hauek izanen dira etxebizitza babestua lortzeko gutxieneko betebeharrak:

a) Errentarien familia-dirusarrera ponderatuak ez izatea ERREGEROSNA-Errenta Egokiagatiko Erosahalten-nahikotasun adierazlea halako 6,5 baino handiagoak, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren aitortpenak aurkezteko epea errentamendua egiten den egunerako bukatuta daukan azkeneko zergaldian.

b) Errentariak, edo haien familia-unitatearen beste edozein kide, ez izatea beste etxebizitza baten edo haren zati alikuotaren jabariaren titularrak edo hura erabili edo gozatzeko eskubide baten titularrak, salbu eta 17. artikuluan ezarritako desegokitasun- eta eskaintza-betebeharrak batera gertatzen badira.

3. Alokatzeko behin betiko kalifikazioa jaso duten etxebizitza babestuen kasuan, aurreko apartatuan errentarientzat adierazitako gehieneko diru-sarrerak ezin izanen dira izan espediente horren behin-behineko kalifikazioaren eskaera egin zenean ezarritakoak baino handiagoak, deusetan galarazi gabe babes ofizialeko araubide bereziko etxebizitzak errentan emateko kontratuen luzapenak egitea, kasu horretan errentariaren gehieneko diru-sarrerak ezin izanen baitira izan xedapen gehigarri honen 2. apartatuan adierazita-koak baino handiagoak.

Berrogeita hiru. Hamabosgarren xedapen gehigarria aldatzen da. Honela gelditzen da idatzita:

Hamabosgarren xedapen gehigarria. Errentamendu-kontratuen esleipena eta berritzea.

Babes ofizialeko etxebizitzaren eta Alokairuen Poltsari atxikitako etxebizitzaren errentamendu-kontratuetan esleitzean eta berritzean, kontuan hartuko dira, dirulaguntza bat eskuratzeko, aurreko urteko zerga-aitortpenetik heldutako datuak.

Berrogeita lau. Hamaseigarren xedapen gehigarriko apartatua aldatu egiten da, eta honela geratzen da idatzita:

"1. Errentamendu-araubideko babes ofizialeko etxebizitzaren eta 60 urtetik gorakoentzako edo desgaitasuna dutenentzako alokairuko apartamentu babestuen sustatzaileek honako dirulaguntza hauek lortzen ahalko dituzte:

a) Kasuko kalifikazioan sarturiko etxebizitzaren (eranskinik gabe) gehieneko salmenta-prezioaren % 25, baldin eta sustatzaileak eskatzen badu hura errentamendurako izatearen iraupena 30 urtekoa izatea.

b) Kasuko kalifikazioan sarturiko etxebizitzaren (eranskinik gabe) gehieneko salmenta-prezioaren % 30, baldin eta sustatzaileak eskatzen badu hura errentamendurako izatearen iraupena 50 urtekoa izatea.

c) Kasuko kalifikazioan sarturiko etxebizitzaren (eranskinik gabe) gehieneko salmenta-prezioaren % 35, baldin eta sustatzaileak eskatzen badu hura errentamendurako izatearen iraupena 75 urtekoa izatea.

Errentamendu ordainerrazeko araubidekotzat kalifikaturiko babes ofizialeko etxebizitzaren kasuan, aurreko portzentajeak % 15, % 20 eta % 25ekoak izan dira, hurrenez hurren".

Berrogeita bost. Hamabosgarren xedapen gehigarria aldatzen da. Honela gelditzen da idatzita:

"Hemezortzigarren xedapen gehigarria. Irabazi-asmorik gabeko elkarteek edo erabilera-lagapeneko araubideko kooperatibek babes ofizialeko etxebizitzak sustatzea.

1. Irabazi-asmorik gabeko elkarte pribatuek edo helburu horretarako eratzen diren kooperatibek zilegi izanen dute babes ofizialeko etxebizitzak erabilera-lagapeneko araubidean sustatzea.

2. Araubide horretan, higiezinaren jabetza, edo kasuko azalera-eskubidearen titulartasuna, elkarte edo kooperatibari dagokio, iraunaldi mugagabez.

3. Elkarte edo kooperatiba eratuko dute lehenbizi eskualdaketa jabetza-araubideko babes

3. Aurreko bi apartatuei jarraikiz eskuratu eta diruz lagundutako etxebizitzak ohiko bizileku iraunkor gisa erabili beharko dira, eta aplikatuko zaie foru lege honen bosgarren artikuluan jasotzen den laguntza ekonomikoaren xede den jarduketa babesgarri orori aplikatzekoa zaion denborabaldintza, 10 urteko epealdirainokoa, zeina kontatzen hasiko baita etxebizitza-eskuratzearen eskritura publikoa sinatzen den egunean. Dirulaguntza ordaintzeko, ezinbesteko betekizuna izanen da aipatu bi baldintzak eskritura horretan aipatuta egotea».

Berrogeita zortzi. Hogeita bosgarren xedapen gehigarria kentzen da.

Berrogeita bederati. Hogeita hamargarren xedapen gehigarriaren 2. apartatua aldatzen da, eta honela geldituko da idatzita:

2. Etxebizitza arloko eskumena duen departamentuak etxebizitzak eskuratu ahalko ditu lehiaketa publikoaren bidez edo zuzeneko eskurapenez, Nafarroako Ondareari buruzko apirilaren 4ko 14/2007 Foru Legeak aurreikusitako kasuetan, eta arau horrek ezarritako prozedurei jarraikiz.

Edozein kasutan ere, justifikatuz jotzen da zuzeneko etxebizitza-eskurapena, helburua denean zaurgarritasun sozio-ekonomikoko egoeretan edo higiezin merkatuko urritasunekoetan bizileku-soluzio bat bilatzea, edo despopulatzearen arazo konpontzea; besteak beste, honako kasu hauetan:

- Babes ofizialeko etxebizitza deskalifikatua, lehenetsunez erosi eta atzera eskuratzeko eskubiak baliatzeko irizpide orokorretakoren bat betetzen duena.

- Kontratuko epea amaitzearen duten errentamendu-kontratudun etxebizitzak, errentariak ez duenean ordezkoko bizilekurik.

- Edukitza berreskuratzeko prozesu batean dagoen etxebizitza, demandatuak ez duenean ordezkoko bizilekurik.

- Harako etxebizitza, eraikin edo etxebizitza-multzoa zeinaren prezioa, gutxienez ere, merkatuko prezioa baino % 10 baxuagoa baita, tentsiopeko etxebizitza-merkatuaren zona gisa deklaraturiko eremu batean kokatuta dagoena.

- Harako etxebizitza, eraikin edo etxebizitza-multzoa zeinaren prezioa, gutxienez ere, merkatuko prezioa baino % 20 baxuagoa baita, eskualdatze-eragiketa bost etxebizitza baino gehiagoren gainekoa denean.

- Harako etxebizitza, eraikin edo etxebizitza-multzoa zeinaren prezioa, gutxienez ere, merkatuko prezioa baino % 30 baxuagoa baita.

Berrogeita hamar. Hogeita hamaikagarren xedapen gehigarria aldatzen da. Honela gelditzen da idatzita:

"Hogeita hamaikagarren xedapen gehigarria. Etxebizitzen lotura errentamendu-sistema publiko-arekin.

Etxebizitza-arloan eskumena duen departamentuak ebatzi ahalko du etxebizitzak alokairu-sistema publikoan sartuak izatea, Administrazioak kasuan kasuko kontratuen ikus-onespena egin ondoren, noiz eta pertsona juridiko den sustatzaileak konpromisoa hartzen baitu etxebizitza horiek errentan jartzeko errentamendu-araubidezko babes ofizialeko etxebizitzentzat ezarritako baldintzetan, kontratuaren kasuan kasuko urtealdia amaitu arte. Epe hori sustatzailearen eskariz luzatu ahalko da, errentamendu-urtealdi osoetarako, gehieneko mugarik gabe.

Errentariak zilegi izanen dute errentamenduzko babes ofizialeko etxebizitzetarako aurreikusitako dirulaguntzak jasotzea, betekizun, baldintza eta portzentaje berekin, salbu eta Etxebizitza Babestuaren Eskatzaileen Zentsuan aurretiaz inskribatua egotearen betekizunarekin".

Berrogeita hamaika. Hogeita hamabigarren xedapen gehigarri berria gehitzen da, honako testuarekin:

Hogeita hamabigarren xedapen gehigarria. Kontratazio publikoko prozedura aplikatzen zaien entitateek sustaturiko etxebizitza industrializatuen behin-behineko kalifikazioa.

Kontratazio publikoko prozedura aplikatzen zaien entitateen bitartez sustapen publikoak diren babes ofizialeko etxebizitza industrializatuen behin-behineko kalifikaziorako prozedura hasi ahalko da oinarritzko proiektu baten aurkezpenarekin, zeina definituta baitator Eraikintzaren Kode Teknikoaren I. Partean, behar bezala justifikatuz horren izapidetzearen beharra, oinarri harturik obraren geroagoko lizitazio eta industrializazioa. Halaber aurkeztuko da Etxebizitzaren arloko jarduketa babesgarriak arautzen dituen irailaren 18ko 61/2013 Foru Dekretuaren 21.1.b artikuluan aipaturiko hirigintza-ziurtagiria.

Etxebizitzaren alorreko departamentu eskudunak kalifikazioaren aurreko txosten bat jaulkiko du, etxebizitza babestuaren diseinuari, bizigarritasunari, irisgarritasunari, suteen kontrako babesari eta aplikatzekoa den hirigintza-araudiari buruzko

zenbait zertzeladari buruzkoa, zeinetarako informazio lor baitaiteke aurkezturiko oinarrizko proiektuan.

Txosten-eskaeratik bi hilabete igarotzean, txostena jaulkitzat joko da.

Sustatzaileak osatu eginen du behin-behineko kalifikaziorako eskaera, horretarako aurkeztuz, exekuzio-proiektua eta espedienteko dokumentazio osoa, erregelamenduz xedatzen denari jarraituz, behin-behineko kalifikazioari ekiteko eskaeratik 18 hilabeteko gehieneko epean. Baldin dokumentazioa ez bada epe horretan aurkezten, zilegi izanen da eskaera artxibatzea, etxebizitzalorreko zuzendari nagusiaren ebazpenaren bitartez".

Berrogeita hamabi. Hogeita hamahirugarren xedapen gehigarri berria gehitzen da, honako testuarekin:

"Hogeita hamahirugarren xedapen gehigarria. Tentsiopeko etxebizitza-merkatuaren zonalde batean kokatuta dauden etxebizitza babestu baina babes-araubidea amaituta daukatenetako errenta.

Etxebizitza libreak errentan emateko kontratuetan, baldin etxebizitza horiek lehenago errentamendu-araubidezko edo errentamendu ordainerrazeko araubidezko babes ofizialeko etxebizitzak baziren eta babes-araubidea amaituta izan eta tentsiopeko etxebizitza-merkatuaren zonalde batean kokatuta badaude, lehenbiziko kontratu berriaren hasieran itundutako errentak muga bakartzat izanen du erreferentzia-prezioen indizeen sistema, errentan emandako etxebizitzaren nahiz kokatuta dagoen eraikinaren baldintzen eta ezaugarrien arabera".

Berrogeita hamairu. Hirugarren xedapen iragankorra kentzen da.

Berrogeita hamalau. Hamazazpigarren xedapen iragankorra kentzen da.

Berrogeita hamabost. Hamabosgarren xedapen iragankorreetan, 1. eta 2. apartatuak aldatzen dira, eta 6. apartatu berria eransten da. Testu hau izanen dute:

"1. 2026ko urtarrilaren 1etik aurrera, babesgari gisa kalifikatuak izateko, etxebizitza eta eraikinen birgaitzearen arloko jarduketara babesgarriak soilik egin ahal izanen dira beren eraikuntza amaitu zen datatik 25 urte baino gehiago igaroak dituzten higiezinetan, salbu etxebizitza edo eraikinen ezusteko egokitzapenak egin behar direnean etxebizitzaren erabiltzaile diren edo haien familia-unitateko kide diren desgaituek hura erabili ahal

izateko, edota obrak beharrezkoak direnean instalazioak nahitaez aplikatzeko den araudi teknikora egokitzeko.

Antzinasun hori aldatu ahalko da etxebizitzaren arloan eskumena duen departamentuko titularraren foru aginduaren bidez.

2. Berriazko erregelamendu bat xedatzen ez den bitartean, prozedura erraztu bat ezarriko da 15.000 eurotik beherako aurrekontu babesgarria duten zaharberritze-jarduketara babesgarrientzat. Horren bidez, lanak hasi ahalko dira behin-behineko kalifikaziorako eskaera aurkeztu ondoren eta hura lortu baino lehenago. Lanak amaitzeko gehieneko epea behin-behineko kalifikaziorako eskaera aurkeztu eta 9 hilabetekoa izanen da, eta behin betiko kalifikazioa eskatzeko gehieneko epea, berriz, 12 hilabetekoa izanen da, egun berek kontatzen hasita, eta ez da luzapenik onartuko. Espedientearen behin-behineko kalifikazioa eta behin betikoa aldi berean onestea ahalbidetuko da. Kopuru hori aldatu ahalko da etxebizitzaren arloan eskumena duen departamentuko titularraren foru aginduaren bidez".

"6. Birgaitze babestuketara behin-behineko kalifikatuak izateko eskaera 2026ko urtarrilaren 1etik aurrera aurkezturikoa duten espedienteetarako, honako erregela hauek aplikatuko dira:

a) Xedea dutenean eraikinaren inguratzaile termikoa birgaitzea irailaren 18ko 61/2013 Foru Dekretuan xedatzen denari jarraituz, zeinaren bidez arautzen baitira etxebizitza-arloko jarduketara babesgarriak, dirulaguntzaren portzentajea izanen da diruz laguntzeko moduko aurrekontuaren % 50ekoa, gehieneko dirulaguntza honako biderkadura hau izanik: espediente horretako etxebizitza-kopurua bider 12.500 euro, edo bider 14.000 euro, esku-hartze globaleko proiektuen abaroan sustaturiko espedienteen kasuan.

b) Kendu beharreko amiantodun elementuak dauden kasuetan, zilegi izanen da laguntza gehigarri bat ematea, amianto-hondakinak enpresa baimenduek kendu, manipulatu, garraiatu eta kudeatzearen ondoriozko kostuei dagokien kopurukoa, gehienekoa izanik birgaitzen den etxebizitza bakoitzeko eta eraikin bakoitzeko 1.000 eurokoa eta 12.000 eurokoa, hurrenez hurren: kopururik handiena suertatzen dena.

Zilegi izanen da aipaturiko zenbatekoak eta portzentajea aldatzea, etxebizitzaren arloan eskumena duen departamentuko kontseilariaren foru aginduz.

Salbuespen gisa, foru lege honek indarra hartzen duen unean eraikinaren ingurutzailen termikoaren hobekuntzagaratiko birgaitze babestuko behin-behineko kalifikazioa onartuta daukaten espedienteen sustatzaileek, ez badute behin betiko kalifikazioa eskatu, zilegi izanen dute lege honek indarra hartzen duenetik hiru hilabeteko gehieneko epean eskatzea onar dakien, kasua bada, a) letran zehaztutako portzentaje berria eta gehieneko dirulaguntza Horretarako, frogatu beharko dute epe barrenean dirulaguntza-eskaera bat aurkeztu izana, ez dena ez onetsia ez errefusatua izan, ez eta horretan atzera egin ere, honako deialdi hauek baterako:

- Erronka demografikoko udalerrietan dauden eraikinetan energia-birgaitze jarduketak egiteko dirulaguntzen deialdia, PREE 5000 programa, 691/2021 Errege Dekretuaren arabera, Etxebizitzako zuzendari nagusiaren azaroaren 3ko 2723/2021 Erabakiz onetsia.

- Badauden eraikinetan energia-birgaitze jarduketak egiteko dirulaguntzen deialdia, "Eraikinak, Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoa 2023", Etxebizitzako zuzendari nagusiaren abenduaren 19ko 901/2022 Erabakiz onetsia.

Berrogeita hamasei. Azken xedapenetako lehena izanen den xedapen berri bat sortzen da, honako eduki honekin:

"Azken xedapenetako lehena. Foru legean jasotako erreferentziak.

1. Erosteke aukerarik gabeko errentamenduko araubideari buruz foru lege honetan jasotzen diren erreferentzia guztiak errentamendu-araubideari buruzkoak direla ulertuko da.

2. Erosteke aukeradun errentamenduko araubideari buruz foru lege honetan jasotzen diren erreferentzia guztiak ezabatuztat joko dira".

Berrogeita hamazazpi. Hogeita batgarren xedapen iragankor berri bat sortzen da, honako eduki honekin:

"Hogeita batgarren xedapen iragankorra. Etxebizitzak Etxebizitza Babestuaren Eskatzaileen Erroldaren bitartez esleitzeko sistemen eta prozeduren aplikazio-eguna".

Nafarroan Etxebizitza Izateko Eskubideari buruzko maiatzaren 10eko 10/2010 Foru Legearen III. tituluan jasotzen diren xedapen berriak aplikatuko zaizkie etxebizitza babestuak esleitzeko 2026ko martxoaren 1etik aurrera hasiak diren prozedurei. Hala ere, behin-behineko kalifikazioa egun hori baino lehenago eman zaien

etxebizitza babestuak atxikiko dira aurreko lege-iragankor indarrean zeuden erreserben arabera.

Berrogeita hemezortzi. Hogeita bigarren xedapen iragankor berri bat sortzen da, honako eduki honekin:

"Hogeita bigarren xedapen iragankorra. Onetsitako babes ofizialeko etxebizitzak behin-behineko kalifikazioak."

1. Foru lege hau indarrean sartu aurretik lorturiko behin-behineko kalifikazioak, babes ofizialeko etxebizitzak, aldatuak izaten ahalko dira foru lege honetan aurreikusitako araubide berrien abarora etortzeko, sustatzaileen ekimenez, behin-behineko kalifikazioko prozedura berririk hasi behar izan gabe; hori guztia, ezertan galarazi gabe araubide-aldaketak ezartzen dituen behin-behineko kalifikaziorako baldintzak.

2. Xedapen iragankor honi jarraikiz onetsitako aldaketak honako erregela hauen arabera izanen dira:

a) Modulu aplikagarriek ez dute eraginik pairatuko; izan ere, behin-behineko kalifikaziorako hasierako eskaeraren garaian indarrean zeudenak izanen dira.

b) Ukiturik suertaturiko etxebizitza babestuak esleitu dira foru lege honen III. tituluan jasotako erreserben, baremoaren eta gainerako xedapenen arabera.

c) Aldaketak sortzen ahalko dituzte aurreikusitako araubide berrietarako ezarritako dirulaguntzak lortzeari dagokionez. Horrek behartuko du jadanik jasoak izan diren laguntzak alde aurretik itzultzera.

d) Errentamendu-araubidezkotzat edo errentamendu ordainerrazeko araubidezkotzat kalifikaturiko etxebizitza babestuen kasuan, haiek errentamendurako erabili behar izatearen iraupena foru lege honek ezartzen duena izanen da.

3. Goragoko 1. apartatuan aipatzen diren behin-behineko kalifikazioaren aldaketarako eskaerak kasuan kasuko behin betiko kalifikazioak lortu aurretik aurkeztu beharko dira, eta modu justifikatuan errefusatua izaten ahalko dira aldaketa ezintzen duten edo bideraezin egiten duten inguruar objektiboak daudenean.

Berrogeita hemeretzi. Hogeita hirugarren xedapen iragankor berri bat sortzen da, honako eduki honekin:

"Hogeita hirugarren xedapen iragankorra. Etxebizitza-errentamenduko kontratuak inskribatzeko epea."

2019ko urtarrilaren 1aren ostekoak diren ohiko etxebizitzaren eta denboraldi baterako etxebizitzaren errentamendu-kontratuak, foru lege honen indarraldia hastean oraindik ez direnak Nafarroako Etxebizitza Errentamenduko Kontratuen Erregistroan inskribatuak izan, foru lege honek indarra hartzen duenetik 6 hilabeteko epean inskribatu beharko dira.

Hirurogei. Hogeita laugarren xedapen iragankor berri bat sortzen da, honako eduki honekin:

"Hogeita laugarren xedapen iragankorra. Etxebizitza-edukitzaile Handien Erregistroan inskribatzeko epea".

Indarraldia hastean araudiaren arabera etxebizitza-edukitzaile handi diren pertsona fisikoak eta juridikoak Etxebizitza-edukitzaile Handien Erregistroan inskribatu beharko dira foru lege honek indarra hartzen duenetik 2 hilabeteko gehieneko epean.

Hirurogeita bat. Hogeita bosgarren xedapen iragankor berri bat sortzen da, honako eduki honekin:

"Hogeita bosgarren xedapen iragankorra. Bigarren edo gehiagogarren eskualdaketan etxebizitza babestuaren jabetza lortzeko betekizun berrien aplikazio-eguna"

Etxebizitza babestuaren jabetza bigarren edo gehiagogarren eskualdaketan lortzeko betekizun berriak aplikatuko zaizkie baimen-eskaera 2026ko urtarrilaren 1etik aurrera eginikoa daukaten eskualdaketei.

Hirurogeita bi. Hogeita seigarren xedapen iragankor berri bat sortzen da, honako eduki honekin:

"Hogeita seigarren xedapen iragankorra. Etxebizitza babestuaren eskatzaile diren pertsonen babes-araubidea hautatzea."

Foru lege honen indarraldia hastean Eskatzaile Zentsuan inskribatuta dauden pertsonen 2026ko martxoaren 1a baino lehenago doitu beharko dute beren inskripzioa 21 eta 31. artikuluetan jasotako xedapenetara, adieraziz zein babes-araubidetan eta sustapen zehatzetan parte hartu nahi duten.

Epe hori neurri hau bete gabe igarotzeak berekin ekarriko du haien eskaera automatikoki ezabatu izatea Zentsuan.

2. artikulua. 1/2017 Legegintzako Foru Dekretua aldatzea, uztailaren 26koa, zeinaren bidez onesten baita Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legearen testu batagina.

Bat. 55. artikuluko 4. eta 6. apartatuak aldatzen dira. Honela gelditzen dira idatzita:

"4. Lurzoru urbanizagarrian edo/eta etxebizitzetarako hiri-lurzoru finkatu gabeen, ibilgailuentzako aparkalekuen aurreikuspenean, gutxienez, bi plaza jarriko dira sestra gaineko edozein erabileratarako eraikinaren 100 metro koadro bakoitzeko, eraikin kolektiboetan, edo etxebizitza bakoitzeko 3 plaza familia bakarreko eraikien sektoreetan, garajeetarako tokia kenduz; erabilera publikoko espazioetan edo eraikinetan, gutxienez 0,5 plaza jarriko dira etxebizitza bakoitzeko, eta 0,5 plaza, halaber, merkataritzako eta hirugarren sektoreko erabileretako 100 metro koadro bakoitzeko. Kontuan hartuta sektore edo unitatearen testuingurua eta hirigintza-tipologia, lurralde- edo hirigintza-antolamenduko tresnan jasotako mugikortasun jasangarriko ereduak, eta ingurunean garrario publikoak duen egoera eta perspektibak, antolamendu xehea ezartzen duen lurralde- edo hirigintza-antolamenduko tresnaren behin betiko onespenerako eskudun den Administrazioak zilegi izanen du bere irizpidearen arabera ezartzea espazio publikoan kokatu beharreko plaza-kopuru jakin bat, lehenago ezarritakoa baino handiagoa edo txikiagoa. Horretarako, ezinbesteko baldintza izanen da mugikortasunari buruzko azterlan bat egitea, administrazio eskudunak ezarritako irizpideen arabera.

Lurzoru urbanizagarrian eta/edo industriarako edo zerbitzuetarako hiri-lurzoru finkatugabeen ibilgailuentzako aparkalekuen aurreikuspena egiteko, kontuan hartuko da zer tipologia duten lurzortiek eta zer jarduera ezartzea aurreikusten den lurzoru horietan, prestatzen diren mugikortasun jasangarriko planen argitan. Saltoki handien kasuan, aparkaleku-kopurua zehazteko orduan, kontuan hartu beharko da bertan biltzen diren mota desberdinetako jardueren funtzionamendu konbinatua, aldibereko erabilera bere unerik gorenean dagoen egoerakoa. Lur gaineko aparkalekuerako erabiltzen diren lursailek edo eraikuntzen barruan aparkalekurako erabiltzen den azalera eraikigarriak ez dute zuzkidura publikoen erreserbarik sortuko.

Nafarroako Gobernuak, foru dekretu bidez, aparkalekuetarako modulu orokorrak ezartzen ahalko ditu, kontuan harturik industriako edo zerbitzuetako tipologia desberdinak eta hirigintzako antolamenduan jasotzen diren erabilera zehatzek sortzen dituzten beharrak."

"6. Nagusiki bizitegietarako erabiltzen diren lurzoru urbanizagarriko sektoreetan, planeamenduak lur-erreserba bat zehaztu beharko du udalez gaindikoz zuzkiduraren izaerarekin eta bizitegietarako eraikitako 100 metro koadro bakoitzeko 3 metro koadroko gutxieneko azalarekin, zeinak orube-

izaera izanen baitu. Erreserba hori babes publiko-ko araubideren bat duten etxebizitzak eraikitzeko eta etxebizitza alorrean indarrean dagoen araudiak arautzen dituen zuzkidurazko bizitokietarako kalifikatuko da.. Lur horiei esleituko zaien eraikigarritasuna ez da izanen, guztira, sektoreak osotara duen eraikigarritasunaren % 7 baino txikiagoa. Lurzati horietan, eraikinen hirigintza-baldintzak inguruko lurzatietakoei dituztenen antzekoak izan beharko dira. Lurzati horien eraikigarritasuna ez da kontuan hartuko udalari nahitaez egin beharreko aprobetxamenduaren esleipena kalkulatzeko, eta ez da gainerakoarekin batuko sektorearen gehieneko aprobetxamendua kalkulatzeko; horrez gain, ez du zuzkidura publikoetarako erreserbarik sortuko.

Apartatu honetan aurreikusitako erreserbatik suertatzen den lurzatiak 300 metro koadroko azalera edo txikiagoa izanez gero, kokatuta dagoen udalerraren ondarean sartuko da, eta udalerririk horrek zuzkidura publikoetarako erabili beharko du”.

Bi. 98. artikuluko b) letra aldatzen da. Hona testu berria:

“b) Nahitaez eta dohainik lagatzea behar den lurzoru guztia, planeamendu orokorrak, hala denean, kasuan kasuko esparruaren barrenean sartzen edo atxikitzen dituen sistema orokorrak exekutatzekoa, bai eta babes publiko-ko araubideren bat duten etxebizitzak egiteko udalez gaindiko zuzkiduretarakoak diren lurrak ere; halaber, etxebizitzaren alorrean indarra duen araudiak arautzen dituen zuzkidurazko bizitokietarakoak direnak”.

Hiru. 187. artikuluko 3. apartatua aldatzen da. Honela gelditzen da idatzita:

“3. Planeamenduaren arabera udalez gaindiko zuzkiduretarako diren lurrak nahitaezko eta doako lagapenaren bidez eskuratuko dira, zeina eratorriko baita haiek lurzoru urbanizagarriaren sektore bakoitzerako zehaztetik”.

Lau. 231. artikulua 2. apartatuari d) letra berri bat eransten zaio, eta honela geratuko da idatzita:

“d) Azalera-eskubidea lehiaketa publiko-ko edo beste hautaprosedura batzuen bidez esleiturik, kasuko araudiaren arabera. Kontrakoa dioen berriazko xedapenik ezean, aplikatu beharrekoak izanen dira 237. bis artikuluan ezarritako zehaztapenak”.

Bost. 234. artikulua aldatzen da, eta testu hau izanen du:

“234. artikulua. Ondareko ondasunak.

Lurzoru Publikoaren Foru Bankua honako ondasun eta baliabideek osatuta egonen da:

a) Foru Komunitatearen Administrazioaren titulartasun publikoko lursailak, desjabetze bidez nahiz beste edozein prozeduraz eskuratuak Lurzoru Publikoaren Foru Bankurako.

b) Lurzoru Publikoaren Foru Bankuari esleitzen zaizkion Nafarroako Ondarearen ondare-ondasunak.

c) Lagapen bidez udalez gaindiko zuzkidurarako eskuraturiko lursailak.

d) Lurzoru Publikoaren Foru Bankua osatzen duten ondasunen kudeaketatik, besterentzetik edo kostu bidezko kargapetze-egintzetatik lorturiko diru-sarrerak”.

Sei. 236. artikulua aldatzen da, eta testu hau izanen du:

“236. artikulua. Xedea.

1. Lurzoru Publikoaren Foru Bankua osatzen duten ondasunak babes publiko-ko araubideren bati loturiko etxebizitzak eraikitzeko, zuzkidurazko bizitokietarako edo gizarte-intereseko beste helburu batzuetarako erabili beharko dira.

2. Foru lege honen 55.6 artikuluan aurreikusitako udalez gaindiko zuzkiduraren kontzeptuan lorturiko ondasunak babes publiko-ko araubideren batekoak diren etxebizitzak edo zuzkidurazko bizitokiak bakarrik eraikitzeko erabiliko dira, etxebizitzaren alorreko araudi indardunak arautuak.

3. Ondasun horien kudeaketatik lorturiko diru-sarrerak, lagapen, kanon eta gainerako negozio juridikoen kontzeptukoak, kostu bidezkoak (ez doakoak), haien kontserbazio, kudeaketa eta hedatzera bideratuko dira. Horietan barne hartutzat joko dira hirigintzako planeamendu eta kudeaketako tresnak prestatzeko beharrezkoak diren gastu guztiak eta foru lege honen 139. artikuluan aurreikusitako urbanizazio-gastuak”.

Zazpi. 237. artikulua aldatzen da, eta testu hau izanen du:

“237. artikulua. Kudeaketa.

1. Lurzoru Publikoaren Foru Bankua osatzen duten ondasunak modalitate hauetakoren baten bidez kudeatzen ahalko dira:

a) Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren menpeko erakunde edo ente instrumentalei atxikitzea, edo sozietate publikoei, haien administrazio, kontserbazio, defentsa eta hobekuntzarako.

b) Beste administrazio publiko, erakunde publiko, ente instrumental eta sozietate publiko batzuei

lagatzea, are dohain eta denbora mugagaberako, lagatako lurzoruaren gainean sustatu eta eraikitzeke.

c) Irabazi-asmorik gabeko sorospen-, gizarte- edo sindikatu-entitateei zuzenean besterentzea, lursailen balioa baino txikiagoa ez den prezioan.

d) Azalera-eskubidea zuzenean esleitzea etxebizitza babestuen kudeaketan diharduten beste administrazio publiko, ente instrumental, sozietate publiko edo kapital mistoko sozietate batzuei, hurrengo artikuluan xedatzen denari jarraituz.

e) Azalera-eskubidea etxebizitza-kooperatibei esleitzea, lehiaketa publikoz nahiz beste hautaprozadura batzuen bidez, zeinek betiere bermatu beharko baitute berdintasun-printzipioa haien artean.

f) Azalera-eskubidea irabazi-asmorik gabeko sorospen-, gizarte- edo sindikatu-entitateei esleitzea.

2. Aurreko apartatuan xedatzen dena ezertan galarazi gabe, Lurzoru Publikoaren Foru Bankua osatzen duten ondasun haiek zeinak zuzkidurazko bizitokietarako ekipamendu komunitariotzat kalifikatuak baitira Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak zuzenean kudeatuko ditu; dena den, hirugarren batzuen eskuetan uzten ahalko dira administrazio-emakida bitartez, haien eraikuntza eta ustiapenerako, zeinak 237. ter artikuluan aurreikusitako moduan eginen baitira.

Zortzi. 237. bis artikulua berria gehitzen da. Hona:

"237. bis artikulua. Lurzoru Publikoaren Foru Bankuaren ondasunen gaineko azalera-eskubidea.

1. Etxebizitza babestuen eraikuntzarakoak diren Lurzoru Publikoaren Foru Bankuaren ondasunen gainean azalera-eskubidea eratzeko egintzak honako zertzelada hauek bildu beharko ditu gutxienez ere:

a) Azalera-eskubidea zein ondasunen gainean eratzten den adierazten duen zehaztapena.

b) Foru lege honen 240. artikulua 2. apartatuan azalera-eskubidearentzat aurreikusten den gehieneko iraupena, zeina 99 urtekoa izateraino luzatzen ahalko baita, baldin etxebizitzetako legezko biztanleek epea amaitu baino lehen horretarako eskaera egin badute, zeina betiere lotuta egonen baita horiek eraikinean hobekuntzak egiteko konpromisoa izateari, bizitza baliagarriaren luzapena justifikatzen duten hobekuntzak hain zuzen.

c) Azalera-eskubidea kostu bidez ala dohain eratzeari buruzko zehaztapena, eta, kasua bada, eskubidearen eta kanonaren prezioa.

d) Eraiki beharreko etxebizitza babestuen kopurua eta haien oinarrizko ezaugarriak.

e) Etxebizitza babestuen araubidea eta kalifikazioa, eta horiek lortzeko baldintzak, etxebizitza-alarreko araubide indardunaren arabera.

f) Azalera-eskubidearen hileroko alokairuaren edo salmentaren gehieneko prezioa metro karratu erabilgarri bakoitzeko, etxebizitza-alarreko araubide indardunaren arabera.

g) Obrak egiteko gehieneko epearen zehaztapena.

h) Azalera-hartzaileek onartu beharko dituzten kontrol- eta auditoretza-betebeharrak.

i) Ezarritako baldintzak urratzeagatiko arauhausteen eta zigorren araubidea.

j) Azalera-eskubidearen azkentzea eta lurzoruaren titular den administrazio publikoaren aldeko itzulketa nola eginen den, azalera-eskubidearen epea amaitu ondoren.

k) Adierazi beharrekotzat jotzen den beste edozein, horretarako justifikazioa egonez gero.

2. Azalera-hartzaileek azalera-eskubidearen eraketaren aurretik frogatu beharko dute behar adinako kaudimen ekonomiko eta tekniko dutela etxebizitzak eraikitzeke, eta halaber behartuta egonen dira eraiki beharreko etxebizitzaren kontserbazio, mantentze eta kudeaketarako programak aurkeztera.

3. Azalera-eskubidea baliozko moduan era dadin, beharrezkoa da hura eskritura publikoan formalizatzea eta eskritura Jabetza Erregistroan inskribatzea.

4. Nolanahi dela ere, bermatuta egon beharko da Lurzoru Publikoaren Foru Bankuko lurzoruaren titulartasun publikoari eusten zaiola.

Bederatzi. 237. ter artikulua berria gehitzen da. Hona:

"237. ter artikulua. Administrazio-emakida.

Zuzkidurazko bizitokietarako Lurzoru Publikoaren Foru Bankuko ondasunen gaineko administrazio-emakida arautzen duen pleguak gutxienez ere honako zertzelada hauek jaso beharko ditu:

a) Administrazio-emakidaren xede diren ondasunen zehaztapena.

b) Emakida-hartzaileak egin behar dituen obra eta instalazioak.

c) Emakidaren gehieneko iraupena, zeinak ezin izanen baitu 99 urteren muga gainditu. Hala-ber, iraugipen-kausak.

d) Ordaindu beharrekoa litzatekeen kanona.

e) Eraikinaren, etxebizitzaren edo hura osatzen duten bizitoki-unitateen erabileraren barne-araubidea, barne direla, kasua bada, eraikineko espazio amankomunak.

f) Emakidaren iraunaldia bukatzen denean obrek, eraikinek eta instalazioek izanen duten xedea.

g) Adierazi beharrekotzat jotzen den beste edozein, horretarako justifikazioa egonez gero".

Hamar. 239. artikulua aldatzen da, eta testu hau izanen du:

"239. artikulua. Azalera-eskubidea.

Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak, toki entitateek, erakunde publikoek, ente instrumentalek eta sozietate publikoek azalera-eskubidea eratzin ahal dute beren jabetzakoak diren lurretan, lagapen bidez eskuratutakoak barne, edo lurzoruaren ondare publikoa osatzen dutenetan, babes publikoko araubideren bati loturiko etxebizitzak eraikitzeke edo gizarte intereseko beste erabilera batzuetarako. Eskubide hori azalera-hartzailearena izanen da. Lurzoruaren Foru Bankua osatzen duten ondasunen gaineko azalera-eskubidea banku hori arautzen duten artikuluetan aurreikusitako berezitasunek ere arautuko dute".

Hamaika. 240. artikuluko 2. apartatua aldatzen da. Honela gelditzen da idatzita:

"2. Azalera-eskubidearen epeak ez du hirurogeita hamabost urte gaindituko, ezertan galarazi gabe 237. bis artikulua xedatzen duena".

Hamabi. Laugarren xedapen gehigarria aldatzen da. Honela gelditzen da idatzita:

"Laugarren xedapen gehigarria. Planeamenduen arabera ekipamenduetarako den azalera.

Planeamenduan toki zuzkiduretarako gordetako azaleraren 100eko 5 bitarte erabiltzen ahalko dute toki entitateek, horretarako arrazoiak emanaz, bertan zuzkidurazko bizitokiak, alokairuaren araubideko etxebizitza babestuak edo erabilera-lagapeneko araubideko etxebizitza babestuak eraikitzeke, foru lege honen 239. artikuluan eta horrekin lotutakoetan aurreikusitako azalera-eskubidearen lagapena baliatuz, edo zuzenbidean onartutako beste edozein bide erabiliz, baldin eta, betiere, ziurtatzen bada azalera horrek toki entitatearen ondarekoa izaten jarraituko duela.

Aurreko apartatuan xedatzen dena ezertan galarazi gabe, toki entitateek zilegi izanen dute administrazioarteko lankidetzahitzarmenak sinatzea Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioarekin, etxebizitza babestu horiek eraikitzeke. Hitzarmen horiek jasotzen ahalko dituzte lurzoru hori Lurzoruaren Foru Bankuan sartzeko asmoz lagatzeko klausulak.

Xedapen indargabetzaile bakarra. Arau-indargabetzea.

Indargabetu egiten dira foru-lege honetan xedatutakoaren kontrakoak diren maila bereko edo apalagoko xedapen guztiak.

Azken xedapenetako lehena. Nafarroako Gobernuak gaitzea testu bategin bat prestatzeko.

Nafarroako Gobernuari baimena ematen zaio testu bategin bat onetsi dezan foru lege honek indarra hartu eta hogeita lau hilabeteko epean, jasoko dituen, behar bezala erregularizatuak, argituak eta harmonizatuak, maiatzaren 10eko 10/2010 Foru Legea, Nafarroan Etxebizitza Izateko Eskubideari buruzkoa, eta jarraian zerrendatzen diren gainerako arauak, bai eta haiek aldatzeko onetsi diren lege-mailako arauak ere eta, haien esparru materialari eraginik, kasua bada Nafarroako Gobernuak testu bategina onetsi aurretik onesten direnak, baldin aurreikuspen hori jasotzen badute:

– Hirigintzaren eta etxebizitzaren arloan presako neurriak hartzeko ekainaren 5eko 6/2009 Foru Legearen 11. artikulutik 17.era bitartekoak eta laugarren xedapen gehigarria.

– Nafarroako 2012rako Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 28ko 19/2011 Foru Legearen hogeita hamahirugarren xedapen gehigarria.

– 24/2013 Foru Legea, uztailaren 2koa, Nafarroan etxebizitzarako eskubidea ziurtatzeko neurri urgenteei buruzkoa.

– Zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk ezartzen dituen abenduaren 28ko 38/2013 Foru Legearen azken xedapenetan bigarrena.

– 27/2014 Foru Legea, abenduaren 24koa, Nafarroan Etxebizitza Izateko Eskubideari buruzko maiatzaren 10eko 10/2010 Foru Legea aldatu, etxebizitza arloko jarduketa babesgarriei aplikatu beharreko moduluak ezarri eta Nafarroako Etxebizitzaren Erregistro Orokorra sortzen duena.

– 22/2016 Foru Legea, abenduaren 2koa, zeinaren bidez herritarrentzako laguntza-neurriak ezartzen baitira etxebizitzaren alorrean.

– Nafarroako 2018rako Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 28ko 20/2017 Foru Legeko hogeita seigarren eta hogeita bederatzigarren xedapen gehigarriak.

– 28/2018 Foru Legea, abenduaren 26koa, Etxebizitzarako eskubide subjektiboa aitortzen duena.

– 2020. urterako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko martxoaren 4ko 5/2020 Foru Legearen azken xedapenetatik hirugarrena.

– 7/2020 Foru Legea, apirilaren 6koa, premiazko neurriak onesten dituena koronabirusaren (COVID-19) osasun krisiak eragindako inpaktuari aurre egiteko.

– 5/2020 Foru Lege-dekretua, maiatzaren 20koa, premiazko neurriak onesten dituena koronabirusaren (COVID-19) osasun krisiak eragindako inpaktuari aurre egiteko.

Azken xedapenetako bigarrena. Erregelamenduzko arauak emateko gaikuntza.

Baimena ematen zaie Nafarroako Gobernuari eta etxebizitza-arloan eskudun den departamentuko kontseilariari foru lege hau aplikatu eta garatzeko beharrezkoak diren erregelamenduzko xedapen guztiak jaulkitzeko.

Azken xedapenetan hirugarrena. Indarra hartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratua izan eta biharamunean hartuko du indarra.

Hala ere, etxebizitza-errentamenduetako fidantzen gordailutzearen nahitaezkotasunari buruz 96.ter artikuluan jasotzen diren xedapenek 2027ko urtarrilaren 1etik aurrera izanen dute efektua.

11-25/PRO-00011. Foru-lege proposamena, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen Testu Bategina onesten duen ekainaren 2ko 4/2008 Legegintzako Foru-dekretua aldatzekoa

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko martxoaren 31n egindako bilkuran, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobeitzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dion legegintza-ekimena erabiliz, Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioak Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen Testu Bategina onesten duen ekainaren 2ko 4/2008 Legegintzako Foru-dekretua aldatzen duen foru-lege proposamena aurkeztu du, eta eskatu du irakurketa bakarrean izapidetu dadila.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 168. eta 179. artikuluetan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrarekin adostu ondoren, honako hau ERABAKITZEN DA:

1. Agintzea Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen Testu Bategina onesten duen ekainaren 2ko 4/2008 Legegintzako Foru-dekretua aldatzeko foru-lege proposamena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin.

2. Foru-lege proposamen hori Nafarroako Gobernuari igortzea, Erregelamenduko 168. artikuluan ezarritako ondorioetarako.

3. Foru-lege proposamen hori irakurketa bakarreko prozeduraren bidez izapidetzea.

4. Zuzenketak aurkezteko epe bat irekitzea, eztabaidari ekiteko Osoko Bilkuraren egunaren aurrekoaren 12:00etan bukatuko dena. Zuzenketak Legebiltzarreko Mahaiari aurkeztu beharko zaizkio.

Iruñean, 2025eko martxoaren 31n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Foru-lege proposamena, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen Testu Bategina onesten duen ekainaren 2ko 4/2008 Legegintzako Foru-dekretua aldatzekoa

ZIOEN AZALPENA

Duela gutxi, LGS-lanbide arteko gutxieneko soldataren beste igoera bat onetsi du Ministroen Kontseiluak, eta Estatu osoan eztabaidatua izaten ari da ea horri aplikatu beharko litzaiokeen ala ez pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga.

Eztabaida horretaz harago, kontua da Nafarroan LGSa ez zegoela salbuetsita zerga-aitorpena aurkezteko betebeharretik, Estatuan edo Euskal Autonomia Erkidegoan ez bezala. Hori horrela, igoera horrek berriro eragina izanen du LGSa kobratzen duten langile nafar guztien PFEZean, soldata-atxikipenaren bidez.

Aldameneko komunitatean ere, Euskal Autonomia Erkidegoan, gertatzen ari da gai horri buruzko eztabaida, eta han jadanik iragarri dute 19.000 eurora igoko dutela PFEZ aitorpena egiteko betebeharraren muga.

Nafarroak, bere zerga-autonomian oinarrituz, badu ahalmena 19.000 euro baino gutxiagoko lan-etekinak ez zergapetzea erabakitzeko. Hori lasaigarria izanen da errenta baxuenentzat, hobeki aurre egin ahal izan diezaieten azken urteotan premia biziko produktuetan egin diren prezio-igoerei. Beraz, kendu egiten zaie PFEZ aitorpena egiteko betebeharra 19.000 euroko lan-etekinak jasotzen dituzten langileei eta pentsiodunei. Aitorpen-atalasea igotzearekiko koherentziaz, kendu egiten dira lan-etekinen taulako lehenengo bi tar-teak, eta 19.000 euro baino gehiagoko lan-etekinak jasotzen direnean hasiko da atxikitzeiko betebeharra.

Artikulu bakarra. Aldatu egiten da ekainaren 2ko 4/2008 Legegintzako Foru Dekretuaren, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen testu bategina onesten duenaren, hirurogeita bederatzigarren xedapen gehigarria. Honako testu hau izanen du:

“1. 2025eko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin, urteko diru-sarrera osotan 19.000 euro

izanen da maiatzaren 24ko 174/1999 Foru Dekretuaren bidez onetsiriko Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Erregelamenduaren 56.a) artikuluan aipatzen diren lan-etekinen zenbatekoa.

Zenbateko hori erregelamendu bidez aldatzen ahalko da.

2. 2025eko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin, lehenengo bi tarteak kentzen dira lan-etekin orokorren gaineko atxikipen-ehunekoen taulatik, maiatzaren 24ko 174/1999 Foru Dekretuaren bidez onetsiriko Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Erregelamenduaren 71.Bat artikuluan jasota dagoenetik. Aurrerantzean, honako hau izanen da lehenengo tarteak:

URTEKO ETEKINA, EUROTAN	SEME-ALABEN ETA BESTELAKO ONDORENGOEN KOPURUA										
	SEME-ALABARIK GABE	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10 edo GEHIAGO
19.000 baino gehiago	10,0	8,0	6,0	4,0	2,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0

Gainerako tarte eta ehunekoetan ez dago aldaketarik.

Atxikipen-aula erregelamendu bidez aldatzen ahalko da”.

Azken xedapen bakarra. Indarra hartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratua izan eta biharamunean hartuko du indarra.

E saila:
INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

11-25/MOC-00051. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentua premiatzen baita hezkuntza- eta demografia-azterlan zorrotz bat egin dezan sistemako etapa guzti-guztietan, itundu behar ez diren unitateak arian-arian kentzeko kronograma bat ezartzea ahalbidetuko duena

CARLOS GUZMÁN PÉREZ JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko martxoaren 31n egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Carlos Guzmán Pérez jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentua premiatzen baita hezkuntza- eta demografia-azterlan zorrotz bat egin dezan sistemako etapa guzti-guztietan, itundu behar ez diren unitateak arian-arian kentzeko kronograma bat ezartzea ahalbidetuko duena.

2. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

3. Ezartzea mozioa Osoko Bilkuran izapidetu dadin, eta xedatzea zuzenketak aurkezteko epea buka dadin eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2025eko martxoaren 31n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Contigo Navarra-Zurekin Nafarroa talde parlamentarioko Carlos Guzmán Pérez parlamentariak, Parlamentuko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko:

Eskatzen dugu mozio hau betetzeari buruzko jarraipena Nafarroako Parlamentuko Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko Batzordean egin dadila.

Zioen azalpena

Administrazio publikoen lehenbiziko betekizun politikoa da hezkuntza-sare publikoa indartzea, hartara bermatuko baita Nafarroako gizarteko ume guztien helburu eta aukera berdintasuna. Hori da, hain zuzen ere, 2025-2026 ikasturterako aurreinskripzio-kanpainan Nafarroako Gobernuak dioena. "Ez bilatu gehiago, zatoz publikora".

Aurreko mendeko 50eko, 60ko eta 70eko hamarkadetan hezkuntza artatzen zuten ikastetxe pribatu ugari egoteak eragin zuen Espainiako Parlamentuak LODE onestea 1985ean. Hau da, irakaskuntza-mota hori itundu zen, ikastetxe horiek diru publikoaren bidez finantzatuta. Ikastetxe horiek hainbat ideologiatako kooperatiba eta/edo patroirenak ziren; horietako, asko, erlijio katolikoarenak. XXI. mendearekin iritsitako aldaketa sozialak egiturazko desorekak sortu ditu, Nafarroako hezkuntza-sistema hezkuntza-sare publikoaren ardatzaren inguruan egituratzea eragozten dutenak.

2023-2027 aldirako Nafarroako Gobernu aurrekoi eta plural baterako programa-akordioak honako bi proposamen hauek jasotzen ditu 5. apartatutan (Ezagutza, hezkuntza eta aukera-berdintasuna):

5. Unitate itundurik ez gehitzea eta unitate itunduak murriztea eskari nahikorik ez dagoenean.

6. Derrigorrezko hezkuntzaren ondoko etapan itunak murriztu daitezzen aztertzea eta sustatzea, haien indarraldia bete ahala.

Bi proposamen horiek, gastu publikoaren efizientziari erantzuteko beharrezkoak diren arren, ez dira aski baldin eta ahazten edo albo batera uzten bada Nafarroako Gobernuak hezkuntzaren derrigorrezko etapekiko duen konpromiso konstituzionala (6tik 16 urtera bitarte). Izan ere, siste-

man inertziaz mantentzen ari dira itundutako unitate horiek, ez direlako beharrezkoak izanen epe motz eta ertainean, Hezkuntza Departamentuak dauzkan datuen arabera.

Egungo indize demografikoa egiaztatuta (jaiotza-tasa etengabe jaisten ari da, eta ematen du horrela jarraituko duela aurrerantzean ere), eta ikusita, bestalde, etorkinak (gero eta gehiago dira) gehienbat ikastetxe publikoetan eskolatzearen aldeko hautua egiten ari direla, ikasturtez ikasturte behar dugu hezkuntza-eskaintza berrantolatatu eta gastu publikoaren efizientzia bilatu. Administrazio publikoek hori egin behar dute.

Hori horrela, beharrezkoa da ikastetxe publikoen sarea osorik erabiltzea eta apustu egitea irakasleek (funtzionario nahiz aldi baterako lan-kontratadunak izan) enplegu duina izan dezaten, apustu egitea administrazio publikoaren beraren alde, lege indardunei jarraikiz oposizio-prozesuetan parte hartu ondotik.

Hortaz, 2025-2026 ikasturterako aurreinskripzioa egiteko epea igarota, familiek libreki adierazitako eskaria ezertan kaltetu gabe eta kontuan hartuta Espainiako Konstituzioaren 27. artikuluan botere publikoei agindutakoa, Hezkuntza Departamentuak analisi eta plangintza lan zorrotza egin behar du.

Erabaki-proposamena:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentua premiatzen du hezkuntza- eta demografia-azterlan zorrotz bat egin dezan sistemako etapa guzti-guztietan, itundu behar ez diren unitateak arian-arian kentzeko kronograma bat ezartzea ahalbidetuko duena, departamentuaren irakasle-kidegoek eta instalazioek hezkuntza-zerbitzua emateko ahalmena baitute.

Iruñean, 2025eko martxoaren 24an

Foru parlamentaria: Carlos Guzmán Pérez

11-25/MOC-00052. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita berarenak balira bezala har ditzan PRO-TAV plataformaren helburuak eta proposamenak

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko martxoaren 31n egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita berarenak balira bezala har ditzan PRO-TAV plataformaren helburuak eta proposamenak.

2. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

3. Ezartzea mozioa Osoko Bilkuran izapidetu dadin, eta xedatzea zuzenketak aurkezteko epea buka dadin eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2025eko martxoaren 31n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide eta Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioaren eledun José

Javier Esparza Abaurrea jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du berarenak balira bezala har ditzan PRO-TAV plataformaren helburuak eta proposamenak eta, hortaz, egin egin ditzan.

Zioen azalpena

Nafarroak aurrera egitea, haztea eta aukeraz betetako etorkizunarekin konektatzea merezi du. Gure erkidegoak denbora gehiegi darama bigarren mailan garraio-azpiegituren arloan oro har eta trenbide-azpiegituren arloan bereziki eta, horrenbestez, enpresen aurrerabidearen arloan.

Nafarroa ezin da atzean gelditu. Begirada altxatzeko eta etorkizunarekin, aukera gehiago eta hobeagoekin, ekonomia indartsuago batekin konektatuko gaituen tren bat konbentzimenduz exijitzeko unea da, Nafarroa oparago batera eramanen gaituena, etorkizunarekin konektatua eta etorkizunerako prestatua.

Egun, Espainian AHTko 4.000 kilometro baino gehiago daude eraikiak eta zerbitzuan; horrek esan nahi du Espainiako biztanleen % 80 baino gehiagok daukala zerbitzu hori bere probintziako hiriburuan. Nafarroak, aldiz, ez dauka halako zerbitzurik, eta horrenbestez Espainiako gainontzeko erkidegoak baino okerrago dago sozialki eta ekonomikoki.

Nafarroa erkidego giltzarria da bere dinamismo ekonomikoagatik, bere kokapen estrategikoagatik eta bere industria-sare sendoagatik. Halere, abiadura handiko tren-konexioan egindako inbertsio eskasak kalte egin liezaieke bere lehiakortasunari eta Espainiako garraio-korridore nagusietan sartzeko aukerari.

Hori dela-eta, PRO-TAV plataforma sortu da, Nafarroako Gobernuari azpiegitura garrantzitsu hori bultzatzen laguntzeko.

PRO-TAV plataformak helburu zehatz batzuk planteatu ditu 2025 honetarako, Nafarroako Gobernuak bere egin beharko lituzkeenak.

Horregatik, Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du berarenak balira bezala har ditzan PRO-TAV plataformaren helburuak eta proposamenak eta 2025ean honako erabaki-proposamen hauek gauzatu ditzan:

1. Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernua premiatzen du honako informazio-azterlan hauek onets ditzan 2025ean zehar:

a) Zaragoza-Castejón informazio-azterlana. 2023ko martxoaren 31n argitaratu zen.

b) Iruñerriko informazio-azterlana. 2023ko martxoaren 31n argitaratu zen.

c) Castejón (behin-behineko) konexioaren informazio-azterlana. 2023ko uztailaren 4an argitaratu zen.

2. Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernua premiatzen du Zuasti-Altsasu informazio-azterlana argitaratu dezan 2025ean zehar.

3. Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernua premiatzen du honako eraikuntza-proiektuen idazketa kontratatu ditzan 2025ean zehar:

a) Arrizabalaga-Iruñeko geltoki berria tartea.

b) Iruñeko geltoki berria.

c) Zaragoza-Castejón 2 tarte.

4. Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernua premiatzen du aurtan bertan prestatu eta argitaratu ditzan Tuterako eskualdeko geltoki berrirako informazio-azterlan osagarri berria eta Tuterako trenbide-konponbide integrala.

5. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Espainiako Gobernuarekin negoziatu eta adostu dezan Estatuko Aurrekontu Orokorretan urtero 350 milioi euroko gastua egiteko konpromisoa jasotzea Nafarroan AHTaren obrak egiteko.

6. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Espainiako Gobernuarekin batera gehienez ere hiru hilabeteko epean batorde bat eratu dezan (Garraioetako, Mugikortasuneko eta Hiri Agendako Ministerioaren eta ADIFen, Nafarroako Gobernuaren eta PRO-TAV plataformaren ordezkari kualifikatuek osatua), abiadura handiko Nafarroako korridorearen programazioa eta jarraipena egiteko.

Iruñean, 2025eko martxoaren 27an

Eleduna: José Javier Esparza Abaurrea

11-25/MOC-00053. Mozioa, zeinaren bidez Espainiako Gobernuia premia-tzen baita berehala berrikus dezan 666/2023 Errege Dekretua, albaitari-arretaren arlo guztien bideragarritasuna bermatzeko

FÉLIX ZAPATERO SORIA JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko martxoaren 31n egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Félix Zapatero Soria jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Espainiako Gobernuia premia-tzen baita berehala berrikus dezan 666/2023 Errege Dekretua, albaitari-arretaren arlo guztien bideragarritasuna bermatzeko.

2. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

3. Ezartzea mozioa Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Batzordean izapidetu dadin, eta xedatzea zuzenketak aurkezteko epea buka dadin eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2025eko martxoaren 31n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Félix Zapatero Soria jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako mozio hau aurkeztu du, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Batzordean eztabaidatzeko:

Zioen azalpena

Albaitaritzaren sektoreak funtsezko eginkizuna dauka animalien osasunari, abereen osasunari eta elikagaien segurtasunari begira. Ezinbestekoa da albaitaritzaren medikamentuen erregulazioa, animalien ongizatea eta nekazaritzaren eta abeltzaintzaren sektorearen jasagarritasuna bermatuko bada. Halere, 666/2023 Errege-dekretua indarrean sartu izanak zailtasunak ekarri dizkie albaitariei, hala landa-eremuan nola hiri-eremuan, arriskuan jartzearaino zerbitzuaren kalitatea eta ustiategi nahiz albaitari-klinika askoren bideragarritasuna.

Nafarroako Albaitarien Elkargoa kezkatuta agertu da albaitaritzaren medikamentuak banatzeari, preskribatzeari, emateari eta erabiltzeari buruz errege-dekretu horrek ezartzen dituen murrizketak direla-eta. Murrizketa horiek alferrikako eragozpena

bat dira albaitarientzat oro har, eta landa-eremuetan lan egiten dutenentzat bereziki; izan ere, landa-eremuetan baliabide gutxiago dauzkate, eta arriskuan egon liteke oinarrizko medikamentuak lortzea.

Halaber, araudi horrek eragin nabarmena dauka lagun egiteko animalien albaitari-medikuntzaren jardunean, eta horrek eragina dauka maskoten ongizatean eta osasunean. Funtsezko zenbait medikamenturen eskuragarritasuna murrizteak zaildu egin dezake gaixotasunei eman beharreko tratamendua, eta arriskuan jar dezake lagun egiteko animalien klinika eta ospitaleetako albaitaritzaren zerbitzuaren kalitatea. Egoera horrek sektoreko profesionali eragiteaz gain, maskotak dauzkaten ere eragiten die, mugatuta ikus baitezakete tratamendu egokiak lortu ahal izatea.

Beste autonomia-erkidego batzuek –Gaztela eta Leonek eta Kanariar Uharteek, adibidez– jada Espainiako Gobernuia premia-tu dute araudi hori berrikus dezan, sektorearen errealitateari hobeki egokitzeko xedez, eta Espainiako beste autonomia-erkidego batzuetan –Murtzian, Errioxan eta Andaluzian, adibidez–, albaitariak mobilizazioak eta protestak egin dituzte errege-dekretuak ezartzen dituen zailtasunak salatzeko. Horregatik, Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioan uste dugu Espainiako Gobernuak albaitaritzaren lasterren berrikusi behar duela errege-dekretua, bermatzeko albaitaritzaren medikamentuen erregulazioa ez dela oztopo izanen ez albaitaritzaren jarduteko ez abeltzaintzako sektorearen osasunerako, albaitaritzaren kliniketarako edo lagun egiteko animalientzako ere.

Hori dela eta, erabaki proposamen hau aurkeztu dugu:

1. Espainiako Gobernuia premia-tzen dugu albaitaritzaren lasterren berrikus dezan 666/2023 Errege-dekretua, albaitari-arretaren arlo guztien bideragarritasuna bermatzeko; horretarako, kendu egingen dira alferrikako murrizketak eta bermatu egingen da abereentzako nahiz lagun egiteko animalientzako albaitari-medikamentuak egoki eskuratu ahal izatea.

2. Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministerioari eskatzen diogu albaitaritzaren elkargoekin eta abeltzaintzaren, albaitari-kliniken eta lagun egiteko animalien albaitari-medikuntzaren sektoreetako

profesionalekin hitz egin dezan, araudia horien beharrian errealetara egokitzeko.

3. Erabaki hau Nafarroako Gobernuari, Diputatu Kongresuari, Senatuari eta nekazaritza eta

abeltzaintzaren, albaitaritzaren nahiz maskotajabeen elkarte nagusiei helaraziko zaie.

Iruñean, 2025eko martxoaren 27an

Foru parlamentaria: Félix Zapatero Soria

11-25/MOC-00054. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Nafarroako ijito-populazioaren garapenerako estrategia berri bat taxutu dezan 2025ean

JAVIER ARZA PORRAS JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko martxoaren 31n egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Javier Arza Porrás jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Nafarroako ijito-populazioaren garapenerako estrategia berri bat taxutu dezan 2025ean.

2. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

3. Ezartzea mozioa Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko Batzordean izapidetu dadin, eta xedatzea zuzenketak aurkezteko epea buka dadin eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2025eko martxoaren 31n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Javier Arza Porrás-ek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkeztu du, Nafarroako Parlamentuaren Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko.

Zioen azalpena

Europako Parlamentuak Ijitoak Gizarteratzeko Europako Esparrua onetsi zuen 2011n, eta Europar Batasuneko estatu guztiek nork bere estrate-

gia izatea planteatu zuen. Eta hori egin dute estatu ia guztiek 2012tik hona.

Nafarroaren kasuan, ijitoen garapenerako plan estrategikoak dauzkagu 2011z geroztik. Nafarroako azken estrategia 2022an amaitu zen.

Estrategia horiek guztiak gorabehera, ijitoena da oraindik ere Nafarroan (eta oro har Europan) diskriminazio eta bazterkeria sozial handiena pairatzen duen sektorea.

Ijitoak Gizarteratzeko Europako Esparruak honako hau dio:

- Ijitoei berriaz zuzendutako politikak taxutu beharra dago, politika orokorren osagarri.

- Ezin da gizarteratzean aitzina egin baldin eta aldi berean ez bazaie beste erronka batzuei aurre egiten (ijitoen aurkako jarrera, ijitoen herriaren errekonozimendu instituzionala edo ijitoen parte-hartze sozial eta instituzionala).

Hortaz, berriazko politikarik eduki ezean, edo politikak gizarteratzearen plan orokorrean soilik kokatuz gero, Europako esparruan proposatutakoaren aurka joanen ginateke.

Erabaki-proposamena:

1. 2025ean beste estrategia bat taxutuko da Nafarroako ijitoen garapenerako, eta ijitoen gizar-terte zibilak horretan parte hartuko du.

Iruñean, 2025eko martxoaren 27an

Foru parlamentaria: Javier Arza Porrás

11-25/MOC-00055. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia-tzen baita gehienez ere hiru hilabeteko epean aurkez dezan Nafarroa-rako Gizarteratze Estrategia berri bat

RAQUEL GARBAYO BERDONCES ANDREAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko martxoaren 31n egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Raquel Garbayo Berdonces andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia-tzen baita gehienez ere hiru hilabeteko epean aurkez dezan Nafarroarako Gizarteratze Estrategia berri bat.

2. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

3. Ezartzea mozioa Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko Batzordean izapidetu dadin, eta xedatzea zuzenketak aurkez-teko epea buka dadin eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2025eko martxoaren 31n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako Raquel Garbayo Berdonces andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkez-ten du, Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko Batzordean eztabaidatzeko.

Mozioaren jarraipena Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko Batzordean egitea eskatzen dut.

Zioen azalpena

Pobrezia nafar askori eragiten dion etenik gabeko arazo bat da.

Nafarroako pobrezia eta gizarte-bazterketari buruzko azken datuen arabera (datuok Estatistika-kako Institutu Nazionalaren bizi-baldintzei buruzko inkestan jaso dira), Nafarroan gero eta okerrago gaude, eta pobrezia nahiz desberdinkeria goranzko joera kezagarri horren aurrean ezin dugu ez ikusiarena egin.

Datuek erakusten dute zenbait kolektibo kalte-beragoak direla (emakumeak, 29 urtetik beherako gazteak eta, bereziki, 16 urtetik beherakoak), eta pobrezia-tasa handiagoa dela horien kasuan, baita migratzaileen kasuan ere, egoera zailagoi egin behar baitiete aurre.

Pobrezia ez da soilik baliabide ekonomikorik ez edukitzea, orobat eragiten baitie osasunari, hezkuntzari eta pertsonen bizi-kalitateari. Pobrezia-egoeran dauden pertsonen zailago dute oinarriko zerbitzuak jaso ahal izatea, eta oztopo gehiago dauzkate egoera horretatik irteteko.

Adierazle guztiek diote nabarmen okerrera egin duela Nafarroan pobrezia-egoera: Arope tasa maila historikoetan dago (18,3), pobrezia-ena 14,2koa da, gabezia material eta sozialarena 6,3koa, eta enpleguko behe intentsitatearena 8,5koa. Alde handiarekin gara azken urteotan portaera okerrera izan duen erkidegoa.

Bestalde, hala 2022ko GINI adierazleak (hori da dagoen azkena), zeina 31koa baita, nola 2025eko S80/20 indizeak, zeina 5,5koa baita, adierazten dute gure erkidegoan esponentzialki igo dela desberdinkeria. Nafarroa beti egon da batezbestekoaren azpitik, eta orain, ordea, gainetik dago. Desberdinkeria handiagoa da, beraz, nafarren artean aukerei dagokienez.

Arlo horretako politika publikoak funtsezkoak dira baldin eta egoera aldatu nahi badugu.

Gizarteratze plan estrategiko bat da, hain zuzen ere, gurean egoera zuzentzeko eta berdintasunaren eta gizarteratzearen alde lan egiteko daukagun tresnetako bat.

2018-2021 aldirako Nafarroako Gizarteratze Plan Estrategikoa iraungita dago, eta horri gehitzen badiogu Nafarroako biztanleria asko aldatu dela azken urteotan, are beharrezkoagoa da hori dena kontuan hartuko duen gizarteratze estrategia berri bat taxutzea.

Eskubide Sozialetako kontseilariak behin baino gehiagotan adierazi du oso aurreratuta dagoela hori eta, are, badagoela horretan ari den lantalde bat. Gaia presakoa dela-eta, honako erabaki proposamen hau aurkezten dugu:

- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premia-tzen du gehienez ere hiru hilabeteko epean aurkez dezan Nafarroarako Gizarteratze Estrategia berri bat.

Iruñean, 2025eko martxoaren 27an

Foru parlamentaria: Raquel Garbayo Berdonces

11-25/MOC-00056. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia-tzen baita gehienez ere hiru hilabeteko epean taxutu dezan txosten bat, zeinean aztertuko baita zergatik den Nafarroa batez beste gutxien ordaintzen diena mendekotasuna izanik familia-inguruneko zaintzetarako prestazio ekonomikoak jasotzen dituzten pertsonen, bai eta zer neurri ezarriko diren autonomia-erkidegoen batez bestekoa ordaintzeko gutxienez ere

MARÍA ISABEL GARCÍA MALO ANDREAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko martxoaren 31n egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Isabel García Malo andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia-tzen baita gehienez ere hiru hilabeteko epean taxutu dezan txosten bat, zeinean aztertuko baita zergatik den Nafarroa batez beste gutxien ordaintzen diena mendekotasuna izanik familia-inguruneko zaintzetarako prestazio ekonomikoak jasotzen dituzten pertsonen, bai eta zer neurri ezarriko diren autonomia-erkidegoen batez bestekoa ordaintzeko gutxienez ere.

2. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

3. Ezartzea mozioa Osoko Bilkuran izapidetu dadin, eta xedatzea zuzenketak aurkezteko epea buka dadin eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2025eko martxoaren 31n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Nafarroako Alderdi Popularra talde parlamentarioari atxikita dagoen Maribel García Malo andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko:

Zioen azalpena

Bizi-itxaropena handitzearen eta populazioa gero eta zaharragoa izatearen ondorioz, gero eta pertsona gehiago daude mendekotasun-egoeran gure erkidegoan, pertsona zaharrak, desgaitasunen bat izanik laguntza espezializatua behar dutenak, etenik gabe laguntza behar dutenak eguneroko bizitzako oinarritzko jarduerak egiteko, jateko, paseatzeko, bere burua garbitzeko, jantzeko.

Mendekotasuna eskatu duten 20.949 pertsonaz ari gara (IMSERSOren datuak dira, Autonomiara-ko eta Mendekotasunaren Arretarako Sistemaren kudeaketaren adierazle nagusien bilakaerari buruzkoak); populazioaren % 3,09, alegia.

Mendekotasuna artatzeko Nafarroako sistemak gabezia handiak ditu, eta ezin da gabezia horiei ez ikusia egiten jarraitu. Hori da Mendekotasunaren Behatokiaren XXV. irizpenetik ondorioztatzen dena. Txosten hori urtero egiten da. Lehenbizikoa 2008an egin zen (Mendekotasun egoeran dauden pertsonen autonomia pertsonala sustatzeari eta haiei laguntza emateari buruzko abenduaren 14ko 39/2006 Legea argitaratu eta bi urtera). Txosten horrek sistemaren adierazleak eta adierazle horien bilakaera aztertzen du, autonomia-erkidegoen arteko konparazioa eginez. Datu zehatzak dira, entitate independente batek argitaratuak (Gizarte Zerbitzuen Zuzendari eta Kudeatzaileen Estatuko Elkarteak).

Txostenak ondorioztatzen du prozedura burokratikoaren eta prestazioen zenbateko urrien ondorio dela –eta horiez gain, zerbitzuen intentsitate baxuarena eta konpatibilizatzeko ezintasunarena– low cost sistema, batere eraginkorra ez dena mendekotasun-egoeran dauden pertsonen beharrazinari erantzuteko.

Txosten horrek urtero-urtero monitorizatzen du autonomia-erkidegoetan mendekotasunaren arloan ematen den arreta, eta arreta hori puntuatzen du. Eta Nafarroa ez da azterketa horretatik onik ateratzen; izan ere, Mendekotasunaren Behatokiak berriz ere esan dio Nafarroari ez duela azterketa hori gainditzeko, aurreko urteko nota bera jarri baitio: 4,7.

Autonomia-erkidegoetan balorazioaren eskala egiteko, legearen ezarpenari eta garapenari buruzko 18 adierazle erabiltzen dira; bada, horietatik bederatzitan oso emaitza txarra lortzen dugu, bitan batezbestekoaren pare gaude, eta zazpitan emaitza ona lortzen dugu.

Beste ondorio batzuen artean esaten du Nafarroan familia-inguruneko zaintzetarako prestazio ekonomikoak prestazio guztien % 42,2 egiten duela. Lege-neurri horren xedea da mendekotasuna duten pertsonak zaintzen dituzten senitartekoak errekonozitzea eta babestea, kontziliazioa erraztea eta hala zaintzailearen nola mendekotasuna duen senitartekoaren bizi-kalitatea hobetzea. Mendekotasun-egoeran dagoen pertsonarentzako laguntza ekonomikoa da, arretarako banakako planak hori ezartzen baldin badu. Helburua da ezkontideak edo odol, ezkontza edo adopzio bidezko ahaidetasuneko hirugarren gradura arteko bere senitartekoek mendekotasuna duen pertsonari etxean emandako arretatik heldu diren gastuei aurre egiten laguntzea.

Nafarroa da batez beste gutxien ordaintzen diena familia-inguruneko zaintzetarako prestazio ekonomikoaren onuradunei (hileko 178,91 €, batez beste). Autonomia-erkidegoek, batez beste,

hileko 264,11 € ordaintzen dute, eta Galizia da batez beste gehien ordaintzen duena: 350 €. Mendekotasuna izanik familia-inguruneko zainketarako laguntza hori jasotzen duten gure erkidegoko pertsonak pairatzen ari diren konparaziozko bidegabekeria hori zuzentzeko, honako erabaki-proposamen hau aurkezten dugu:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du gehienez ere hiru hilabeteko epean taxutu dezan txosten bat, zeinean aztertuko baita zergatik den Nafarroa batez beste gutxien ordaintzen diena mendekotasuna izanik familia-inguruneko zaintzetarako prestazio ekonomikoak jasotzen dituzten pertsonari, bai eta zer neurri ezarriko diren autonomia-erkidegoen batez bestekoa ordaintzeko gutxienez ere.

Iruñean, 2025eko otsailaren 27an

Foru parlamentaria: Maribel García Malo

11-25/MOC-00057. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita azterlan integral bat egin dezan Nafarroako genero-indarkeria ekonomikoari buruz eta horri aurre egiteko garatu litezkeen tresnei buruz

CONTIGO NAVARRA-ZUREKIN NAFARROA, NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA, EH BILDU NAFARROA ETA GEROA BAI TALDE PARLAMENTARIOEK AURKEZTU DUTE

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko martxoaren 31n egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Contigo Navarra-Zurekin Nafarroa, Nafarroako Alderdi Sozialista, EH Bildu Nafarroa eta Geroa Bai talde parlamentarioek aurkeztu dute aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita azterlan integral bat egin dezan Nafarroako genero-indarkeria ekonomikoari buruz eta horri aurre egiteko garatu litezkeen tresnei buruz.

2. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

3. Ezartzea mozioa Lehendakaritza eta Berdintasun Batzordean izapidetu dadin, eta xedatzea zuzenketak aurkezteko epea buka dadin eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2025eko martxoaren 31n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Behean sinatzen duten talde parlamentarioek, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako mozio hau aurkezten dute, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko.

Eskatzen dugu mozio hau betetzeari buruzko jarraipena Nafarroako Parlamentuko Lehendakaritza eta Berdintasun Batzordean egin dadila.

Zioen azalpena

Genero-indarkeria da emakumeen eta gizonen arteko egiturazko desberdinkeriaren adierazpen larrietako bat, zenbait modutan gerta daitekeena, horietako asko oraindik ere behar beste ikusarazten ez direnak. Horien artean dago izaera ekonomikoko genero-indarkeria: emakumeen finantza-segurtasuna urratzen da, haien kalteberatasuna behartzeko eta, halatan, botere-asimetria sendotzeko xedez.

Indarkeria ekonomikoa modu askotan ager daiteke: emakumeen baliabide ekonomikoak kontrolatzea eta mugatzea, enplegu bat lortzeko

edo mantentzeko trabak jartzea, zorrak ezartzea, mantenu-pentsioak ez ordaintzea edo ondasunen eta ondarearen erabilera hertsatzailea egitea. Indarkeria-molde horiek, pairatzen dituzten emakumeen oraina kaltetzeaz gain haien etorkizuna eta haien seme-alabena ere baldintzatzen dute, indarkeria-egoeratik atera ahal izatea eragozten dute eta gizartean aukera-berdintasunez parte hartu ahal izatea oztopatzen dute.

Hortaz, genero-indarkeria desagerrarazteko konpromisoak berekin dakar indarkeria horren adierazpen guztiei aurre egitea eta instituzioei tresna egokiak ematea indarkeria hori identifikatzeko eta horri eraginkortasunez aurre egiteko.

Hartara, nahiz eta legedi indardunak onartu indarkeria ekonomikoa genero-indarkeria mota bat dela, esparru autonomikoan oraindik ere mugatuta dago horren azterketa eta abordatzea.

Genero-indarkeriaren molde guztien aurkako borrokan aurrera egiteko, ezinbestekoak dira datu-bilketa, datuen analisia eta genero-indarkeria prebenitzeko eta desagerrarazteko tresna eraginkorrak garatzea.

Hori guztia dela-eta, honako erabaki-proposamen hau aurkezten dugu:

– Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du azterlan integral bat egin dezan Nafarroako genero-indarkeria ekonomikoari buruz, izaera instituzionalekoa barne, eta horri aurre egiteko garatu litezkeen tresnei buruz.

– Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du genero-indarkeriaren arloko datuen eskuragarritasuna, homogeneizazioa, bilketa eta bateratzea sustatzearen arloko ahalegina areagotu dezan, bereziki indarkeria ekonomikoari dagokionez.

– Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du sakonago txerta dezan indarkeria ekonomikoaren errealitatea genero-indarkeriaren arloko prebentzio-, prestakuntza- eta sensibilizazio-politiketan, bai eta arlo hori dela-eta egiten diren itun instituzionaletan ere.

Iruñean, 2025eko martxoaren 27an

Foru parlamentariak: José Miguel Garrido Sola, María Olga Chueca Chueca, Irati Jiménez Aragón, Blanca Isabel Regúlez Álvarez

11-25/MOC-00042. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Memoriaren Institutua premiatzen baita azterlan bat egin dezan gerra zibilean Errepublikaren Armadako kide izan ziren nafarrei buruz eta haien oroimen heroikoa duintzeko egin beharreko jarduketak egin ditzan

MEMORIA ETA BIZIKIDETZA, KANPO EKINTZA ETA EUSKARA BATZORDEAN IZAPIDETZEA

2025eko martxoaren 31n eginiko bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Xedatzea Memoria eta Bizikidetza, Kanpo Ekintza eta Euskara Batzordean izapidetu dadin Carlos Guzmán Pérez jaunak aurkeztutako mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Memoriaren Institutua premiatzen baita azterlan bat egin dezan gerra zibilean Errepublikaren Armadako kide izan

ziren nafarrei buruz eta haien oroimen heroikoa duintzeko egin beharreko jarduketak egin ditzan. Mozioa 2025eko martxoaren 21eko 35. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2025eko martxoaren 31n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

F saila:
GALDERAK

11-25/POR-00140. Galdera, Zubiarte Euskaltegiaren eta Euskararen Irakaskuntzarako Baliabide Zentroaren etorkizuneko kokapenari buruzkoa**ENEKA MAIZ ULAIAR ANDREAK EGIN DU**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko martxoaren 31n egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Eneka Maiz Ulaiar andreak egindako galdera, Zubiarte Euskaltegiaren eta Euskararen Irakaskuntzarako Baliabide Zentroaren etorkizuneko kokapenari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hezkuntza Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2025eko martxoaren 31n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa taldeko foru parlamentari Eneka Maiz Ulaiar andreak, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren babesean, Hezkun-

tza Departamentuari eskatzen dio honako galdera honi ahoz erantzun diezaion.

Zubiarte Euskaltegia Hezkuntza Departamentuaren menpeko euskaltegi publikoa da. 2002. urtean sortu zen, Miluze Euskaltegia eta Irakasleentzako Birziklatze Ikastegia batu ondotik. Euskaltegia Uharte herrian dago kokatua, Zubiarte kaleko 13. zenbakian.

Bestetik, eraikin berean kokatua dago Euskararen Irakaskuntzarako Baliabide Zentroa (EIBZ), hori ere Hezkuntza Departamentuaren menpeko.

Eraikina Uharteko Udalarena da, baina Hezkuntza Departamentuak erabiltzen du hitzarmen baten baitan.

Zer asmo du Hezkuntza Departamentuak Zubiarte Euskaltegiaren eta Euskararen Irakaskuntzarako Baliabide Zentroaren etorkizuneko kokapenari dagokionez?

Iruñean, 2025eko martxoaren 27a

Foru parlamentaria: Eneka Maiz Ulaiar

11-24/POR-00387. Galdera, Neguko Bidezaintza Planari buruzkoa**GALDERA ERRETIRATZEA**

2025eko martxoaren 31n eginiko bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Jasotzat ematea Mikel Zabaleta Aramendia jaunak Neguko Bidezaintza Planari buruz egindako galdera erretiratu izana. Galdera 2024ko aben-

duaren 20ko 146. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2025eko martxoaren 31n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

11-25/PES-00144. Galdera, Valle de Odieta SCLk planteatutako ondare-erantzukizunaren erreklamazioari buruzkoa

ADOLFO ARAIZ FLAMARIQUE JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko martxoaren 31n egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Adolfo Araiz Flamarique jaunak egindako galdera, Valle de Odieta SCLk planteatutako ondare-erantzukizunaren erreklamazioari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2025eko martxoaren 31n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko Adolfo Araiz Flamariquek honako galdera hauek aurkeztu dizkio Legebiltzarreko Mahaiari, izapidetu ditzan eta idatziz erantzun diezaien:

2024ko urriaren 22an, Valle de Odieta SCLk aurkeztutako ondare-erantzukizunaren erreklamazioari buruz egin zitzaion galderari erantzun zion Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariak. Erreklamazio hartan, 19,119 milioi euroko kalte globalen erreparazioa eskatzen zen.

Erantzuna eman zen egunean ez zegoenez horri buruzko inolako ebazpenik, ia bost hilabete igarota honako hau jakin nahi dut:

1. Nafarroako Kontseiluak 23/2023 ebazpena eman ondotik, Nafarroako Gobernuak zer erabaki hartu zuen Valle de Odieta SCL sozietateak planteatu zuen ondare-erantzukizuneko erreklamazioa dela-eta?

2. Onartu al zen Kontseiluaren iritzia, zeinean 3.751.753 euroan balioetsi baitzen lortu gabeko irabazia dela-eta sortutako kaltea?

Iruñean, 2025eko martxoaren 21ean

Foru parlamentaria: Adolfo Araiz Flamarique

11-25/PES-00145. Galdera, Artaxoako Ecofert Sansoain SL eta Tuterako Oleofat Trader taldearen plantetako lixibiatuen espedienteak zertan diren jakiteko

MIGUEL BUJANDA CIRAUQUI JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko martxoaren 31n egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Miguel Bujanda Cirauqui jaunak egindako galdera, Artaxoako Ecofert Sansoain SL eta Tuterako Oleofat Trader taldearen plantetako lixibiatuen espedienteak zertan diren jakiteko.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2025eko martxoaren 31n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Miguel Bujanda Cirauqui jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Zertan dira Ekondakinek kudeatzen duen Gipuzkoako CMG-1 ingurumen-gunean sortutako lixibiatuei buruzko Artaxoako Ecofert Sansoain SLren espedientea eta Tuterako Oleofat Trader taldeak bere edozein ekoizpen-plantetan sortutakoei buruzkoa?

Iruñean, 2025eko martxoaren 24an

Foru parlamentaria: Miguel Bujanda Cirauqui

11-25/PES-00146. Galdera, Tuterako Reina Sofia ospitaleko medikuen datuen gaineko desadostasunei buruzkoa

LETICIA SAN MARTÍN RODRÍGUEZ ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko martxoaren 31n egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Leticia San Martín Rodríguez andreak egindako galdera, Tuterako Reina Sofia ospitaleko medikuen datuen gaineko desadostasunei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2025eko martxoaren 31n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Leticia San Martín Rodríguez andreak, Parlamentuko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

2024ko urtarrilean egin genuen informazio-eskaerari erantzunez (PEI-00052) adierazi zaigu Tuterako Reina Sofia ospitalean 194 mediku-lanpostu daudela beteta (ez "hutsik"); 2024ko azaroan egin genuen informazio-eskaerari erantzunez (PEI-00060), berriz, 203 direla adierazi zaigu. Halere, Tuterako Osasun Barrutiko kudeatzaileak martxoaren 7an egin zuen agerraldian adierazi zuen 185,4 mediku fakultatibo daudela plantillan.

Zeri zor zaio mediku fakultatiboen kopuruari buruzko desadostasun hori?

Iruñean, 2025eko martxoaren 24an

Foru parlamentaria: Leticia San Martín Rodríguez

11-25/PES-00147. Galdera, 35+300 kilometro puntutik 40+900 kilometro puntura bitarte N 121 A errepidea 2+1 erako errepide bihurtzeko proiektuari buruzkoa

PEDRO JOSÉ GONZÁLEZ FELIPE JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko martxoaren 31n egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Pedro José González Felipe jaunak egindako galdera, 35+300 kilometro puntutik 40+900 kilometro puntura bitarte N 121 A errepidea 2+1 erako errepide bihurtzeko proiektuari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2025eko martxoaren 31n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Pedro González Felipe jaunak honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Zertan da N-121 A errepidea 35+300 kilometro puntutik 40+500 kilometro puntura bitarte 2+1 bide bihurtzeko proiektua?

Iruñean, 2025eko martxoaren 24an

Foru parlamentaria: Pedro González Felipe

11-25/PES-00148. Galdera, autobian bidesariak jartzeari buruzkoa

MARÍA TERESA NOSTI IZQUIERDO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko martxoaren 31n egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Teresa Nosti Izquierdo andreak egindako galdera, autobian bidesariak jartzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2025eko martxoaren 31n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide eta atxiki gabeko parlamentari María Teresa Nosti Izquierdo andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hauek egiten ditu, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun ditzan:

1) Nafarroako Gobernuak zergatik jarriko ditu bidesariak A-1 autobian 2026tik aitzina?

2) Zer onura zehatz ekarriko die neurri horrek nafarrei?

3) Zer eragin aurreikusten da izanen lukeela gure erkidegoko trafikoari, ekonomiari eta mugikortasunari dagokienez?

Iruñean, 2025eko martxoaren 26an

Foru parlamentaria: María Teresa Nosti Izquierdo

11-25/PES-00149. Galdera, Maristetan etxebizitzak eraikitzeari dagokionez Arrasate talde sustatzailearen arduradunekin egindako bilerei buruzkoa

JUAN LUIS SÁNCHEZ DE MUNIÁIN LACASIA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko martxoaren 31n egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia jaunak egindako galdera, Maristetan etxebizitzak eraikitzeari dagokionez Arrasate talde sustatzailearen arduradunekin egindako bilerei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2025eko martxoaren 31n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Juan Luis Sánchez de Muniáin jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuko Etxebizitza Departamentuan zenbat bilera egin dira Arrasate talde susta-

tzailearen arduradunekin, maristetako etxebizitzak direla-eta?

– Bilerak noiz egin dira?

– Nortzuk egon dira bileretan?

– Arrasate taldeak zer dokumentazio eman du?

– Etxebizitza babestuen behin betiko kalifikazioaz edo etxebizitza libreen bizigarritasun zedula lortzeaz hitz egin al da bileretan?

– Zer akordio lortu zen auzi horiek direla-eta?

– Ikastetxe izandakoan etxebizitza babestuak eraikitzea aurreikusten da. Horren jabetzaren auzia aztertu al zen bileretan?

– Lehendakariak Parlamentuan adierazi zuen Nafarroako Gobernu ez zela Arrasate talde sustatzailea erreskatatzea aterako, taldeak etxebizitza babestuak eraikitzeke zailtasunak izanen dituela alegatu arren. Bileretan ideia hori bera transmititu al zitzaien?

– Etxebizitza babestuak eraikitzeke eman litezkeen dirulaguntzez eta laguntzez hitz egin al zen?

Iruñean, 2025eko martxoaren 27an

Foru parlamentaria: Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia

11-25/PES-00150. Galdera, Cintruénigoko La Paz DBHiren eraikina handitzeari eta LHko ikasketak paratzeari buruzkoa

JAVIER GARCÍA JIMÉNEZ JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko martxoaren 31n egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Javier García Jiménez jaunak egindako galdera, Cintruénigoko La Paz DBHiren eraikina handitzeari eta LHko ikasketak paratzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2025eko martxoaren 31n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide eta Nafarroako Alderdi Popularra talde parlamentarioaren eledun den Javier García Jiménez jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, idatziz erantzun dakion:

Cintruénigoko Udalak orain dela gutxi negoziatu du La Paz DBHiren ondoko lursailak erostea, eraikina handitzeko eta LHko ikasketak ezartzeko. Behin lursailak erosita, Nafarroako Gobernua eraikina handitzera eta Cintruénigo Lanbide Heziketa-ko ikasketak ezartzera konprometitzen al da?

Iruñean, 2025eko martxoaren 26an

Foru parlamentaria: Javier García Jiménez

11-25/PES-00151. Galdera, animaliak hartzeko zentroen lurralde- eta eskumen-planari buruzkoa

OIHAN MENDO GOÑI JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko martxoaren 31n egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Oihan Mendo Goñi jaunak egindako galdera, animaliak hartzeko zentroen lurralde- eta eskumen-planari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2025eko martxoaren 31n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko foru parlamentari Oihan Mendo Goñik, Parlamentuko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean,

honako galdera hauek egiten dizkio Nafarroako Gobernuko Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuari, idatziz erantzun ditzan:

Lagun egiteko animaliak Nafarroan babesteari buruzko apirilaren 4ko 19/2019 Foru Legeak zenbait betekizun eta eskumen esleitzen dizkie administrazioei; besteak beste, animalien harrera-zenetroak sortu beharra.

Halaber, foru legearen lehenbiziko xedapen iragankorrak ezartzen du Nafarroako aurrekontu orokorretan behar adinako finantza-nahikotasuna bermatuko dela, administrazioek foru legeak ezartzen dizkien betekizunak garatu eta bete ahal izan ditzaten.

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak taxutu al du 19/2019 Foru Legean oinarritutako lurralde- eta eskumen-planik, foru legeak ezartzen dituen animalien harrera-zenetroak jaso, proiektatu eta banatuko dituen?

Hala ez baldin bada, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak abiarazi al ditu aurretzeko lanak (esaterako, datu estatistikoen bilketa), plan hori taxutzeko? Zertan da lurralde-planaren taxuketa? Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak zer epe darabil gogotan plana prest izateko?

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak ba al du urte anitzeko aurreikuspen ekonomikorik 19/2019 Foru legeak ezartzen dituen betekizunak garatu eta bete ahal izateko?

Iruñean, 2025eko martxoaren 27an

Foru parlamentaria: Oihan Mendo Goñi

11-25/PES-00152. Galdera, Zubiarte Euskaltegiaren eta EIBZren kokapenari buruzkoa

ENEKA MAIZ ULAIAR ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko martxoaren 31n egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Eneka Maiz Ulaiar andreak egindako galdera, Zubiarte Euskaltegiaren eta EIBZren kokapenari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2025eko martxoaren 31n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu-Nafarroa taldeko foru parlamentari Eneka Maiz Ulaiar andreak, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren babesean, Hezkuntza Departamentuari eskatzen dio honako idatzizko galdera honi erantzun diezaion.

Zubiarte Euskaltegia Hezkuntza Departamentuaren menpeko euskaltegi publikoa da. 2002. urtean sortu zen, Miluze Euskaltegia eta Irakasleentzako Birziklatze Ikastegia batu ondotik. Euskaltegia Uharteko herrian dago kokatua, Zubiarte kaleko 13. zenbakian.

Bestetik, eraikin berean kokatua dago Euskarearen Irakaskuntzarako Baliabide Zentroa (EIBZ), hori ere Hezkuntza Departamentuaren menpeko.

Eraikina Uharteko Udalarena da, baina Hezkuntza Departamentuak erabiltzen du hitzarmen baten baitan.

Noiztik erabiltzen du Hezkuntza Departamentuak Uharteko Udalaren eraikina Zubiarte Euskaltegia eta EIBZ kokatzeko?

Kokapen hori behin-behinekoa da edo epe luzeakoa?

Iruñean, 2025eko martxoaren 27an

Foru parlamentaria: Eneka Maiz Ulaiar

11-25/PES-00153. Galdera, zerbitzuburuak eta atalburuak izendatzeari buruzkoa

ADOLFO ARAIZ FLAMARIQUE JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko martxoaren 31n egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Adolfo Araiz Flamarique jaunak egindako galdera, zerbitzuburuak eta atalburuak izendatzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2025eko martxoaren 31n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko Adolfo Araiz Flamarique jaunak honako galdera hauek aurkezten dizkio Legebiltzarreko Mahaiari, izapidetu daitezten eta idatzizko erantzuna eman diezaien Barneko, Funtzio Publikoko eta Justiziako Departamentuak:

Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko langileen estatutuaren testu bategina onesten duen abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru-dekretuaren hirugarren xedapen gehigarriaren arabera (2. zenbakia), atalburutzak eta bulegoburutzak behin-behinekoz betetzen ahalko dira, organo eskudunak izendapena eginez gero, eta kargu horiek nahitaez bete beharko dituzte Foru Komunitateko Administrazio funtzionarioek edo hari atxikitakoek.

Maiatzaren 17ko 29/2017 Foru Dekretuaren bidez, Nafarroako Administrazio Publikoetako lanpostuak betetzeko erregelamendua onesten duen azaroaren 6ko 215/1985 Foru Dekretua aldatu zen.

Aldaketa horren bidez, zuzendaritza-ardurak esleitzeko eta burutzak betetzeko prozedura arautu zen, honako printzipio hauen arabera: merezimenduen, gaitasunaren, esperientziaren eta jardunaren balorazioa.

Hori dela-eta, honako galdera hauek aurkezten ditugu:

1. Onetsi zenez geroztik gaur arte, zenbat atalburu edo bulegoburu izendatu dira 29/2017 Foru Dekretuan jasotzen den merezimendu-sistema baliatuta?

2. 2018tik gaur arte, aldiz, zenbat zerbitzuburu eta atalburu izendatu dira behin-behinekoz?

3. Zenbat zerbitzuburu eta atalburu dago guztira Foru Administrazioan?

4. Horietako zenbat izendatu dira merezimendu-lehiaketa bidez eta zenbat bete dira behin-behineko izendapenez?

5. Zenbat atalburu dago Foru Administrazioan funtzionario bakar bat duena atalburutzari atxikirik?

6. Atal horietan, atxikirik dagoen pertsona bakar hori al da atalburua?

Iruñean, 2025eko martxoaren 27an

Foru parlamentaria: Adolfo Araiz Flamarique

11-25/PES-00154. Galdera, Nafarroako etxebizitza-jabeen kopuruari buruzkoa

MIKEL ZABALETA ARAMENDIA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko martxoaren 31n egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Mikel Zabaleta Aramendia jaunak egindako galdera, Nafarroako etxebizitza-jabeen kopuruari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2025eko martxoaren 31n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko foru parlamentari Mikel Zabaleta Aramendiak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hauek egiten dizkio Nafarroako Gobernuako Ekonomia eta Ogasun Departamentuari, idatziz erantzun ditzan:

Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren, Sozietateen gaineko zergaren, Ondarearen gaineko zergaren aitortzen edo Nafarroako hiri-ondasuneko katastroko datuen arabera Ekonomia eta Ogasun Departamentuk dauzkan datuekin bat, honako hau jakin nahi dugu:

– Zenbat pertsona fisiko dira Nafarroan 5 etxebizitza edo gehiagoren jabe?

– Zenbat pertsona fisiko dira Nafarroan 10 etxebizitza edo gehiagoren jabe?

– Zenbat pertsona juridiko dira Nafarroan 5 etxebizitza edo gehiagoren jabe?

– Zenbat pertsona juridiko dira Nafarroan 10 etxebizitza edo gehiagoren jabe?

Iruñean, 2025eko martxoaren 27an

Foru parlamentaria: Mikel Zabaleta Aramendia

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

GRP-3/23. Oihana Gallo San Román andrea EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioan sartzea

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko apirilaren 2an eginiko bilkuran, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Oihana Gallo San Román foru parlamentari andreak 2025eko apirilaren 1ean idazki bat aurkeztu du, zeinean jakinarazten baitu EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioan sartu dela.

Nafarroako Parlamentuaren Erregelamenduko 35. artikuluan ezarritakoari jarraikiz, honako hau ERABAKITZEN DA:

1. Adieraztea Oihana Gallo San Román andrea EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioan sartzearen berri izan duela.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2025eko apirilaren 2an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

J saila:
PONENTZIAK

11-24/PON-00001. Parlamentuko Erregelamenduaren 26.2 artikuluan jasotzen den Jokabide-kodea aztertzeke eta onesteko ponentzia

LANAK BUKATZEKO EPEA LUZATZEA

2025eko martxoaren 31n eginiko bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 42. artikuluekin bat, honako hau ERABAKITZEN DA:

1. Sei hilabetez luzatzea Parlamentuko Erregelamenduaren 26.2 artikuluan jasotzen den Jokabide-kodea aztertzeke eta onesteko ponentziaren lanak bukatzeke epea.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2025eko martxoaren 31n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias
